


Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

2018ko Plangintza



AURKIBIDEA

SARRERA	5
1. ENPLEGU ETA ETXEBIZITZA	7
1.1. GAZTEAK ETA EMANTZIPAZIOA.....	7
1.2. EMANTZIPAZIOARI BURUZKO JARDUNALDIA.....	10
1.3. FORMAKUNTZA DUALA HIRIBURUA.....	12
1.4. ENPLEGU ARLOAN LAN EGITEN DUTEN ERAGILEEKIN HARREMANA.....	14
1.5. GAZTELABEL.....	16
1.6. LAN ISTRIPUEN PROTOKOLOA.....	18
1.7. ENPLEGU ARLOKO DATA ESANGURATSUEN EGUTEGIA.....	20
1.8. EGUNEROKO LANA.....	22
2. HEZKUNTZA.....	25
2.1. ASTIALDI FOROEN KOORDINAZIOA.....	26
2.2. ASTIALDIKO IKASTAROEN KANPAINA.....	27
2.3. UDAKO KANPAINA.....	29
2.4. ASTIALDI FOROKO WEBGUNEA.....	30
2.5. ASTIALDIKO ESKOLEN ETORKIZUNA.....	31
2.6. ATERGUNE: ATERPETXE, LANDA ETA KANPINEN ATARIA.....	33
2.7. BOLUNTARIOTZA KANPAINA 2018.....	35
2.8. HEZITZAILEENTZAKO GIDAK: DROGA-MENDEKOTASUN GIDA.....	36
2.9. ADMINISTRAZIOEKIN KOORDINATU	37
2.10. HEZKUNTZA FOROA.....	38
2.11. ESKOLA KONTSEILUA	40
2.12. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO UDAKO IKASTAROAK.....	41
2.13. UNIBERTSITATEKO ELKARTEEN ARTEKO TOPAKETA.....	42
2.14. EGUNEROKOTASUNA.....	44
3. PARTE-HARTZE	45
3.1. EGK SENDOTZEN.....	45
3.2. PLAZANDRE.....	47
3.3. GIZARTE ALDAKETARAKO HERRITARTASUNA.....	49

3.4. EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN PROGRAMA.....	51
3.5. EMANTZIPAZIOARI BURUZKO JARDUNALDIA.....	52
3.6. PARTE-HARTZEA EUROPAN TXOSTENAREN ARGITALPENA.....	54
3.7. ARABAKO GAZTEEN LURRALDE KONTSEILUA.....	56
3.8. "BILBO ZURE ETXEA" KANPAINA OSTEKO GAZTE GALDETEGIA.....	58
3.9. MATERIAL ETA GELEN LAGAPENA.....	60
3.10. AHOLKULARITZA.....	61
3.11. EGUNEROKOA.....	63
4. BAKEA ETA BIZIKIDETZA	65
4.1. ETIKASI PROGRAMA.....	65
4.2. SAHARAKO BIDEOAREN AURKEZPENA.....	67
4.3. GAZTEON AUKERA DOKUMENTALAREN DIFUSIOA.....	69
4.4. EMAKUMEAK BIZIKIDETZAN TOPAKETA	71
4.5. BAKE LANTALDEA.....	73
4.6. EGUNEROKOA.....	75
5. BERDINTASUNA.....	77
5.1. GAUR8.....	77
5.2. BERDINTASUN PROTOKOLOAK.....	79
5.3. EGK I. BERDINTASUN PLANA.....	81
5.4. GUNE ANITZA.....	83
5.5. 'BERDINHEZI': HEZKIDETZA, EMAKUME GAZTEAK ETA LIDERGOA.....	84
5.6. PLAZANDRE.....	86
5.7. EMAKUMEAK BIZIKIDETZAN TOPAKETA.....	88
5.8. EGUNEROKOTASUNA.....	90
6. KOMUNIKAZIOA.....	93
6.1. TWITTER LEHIAKETA.....	93
6.2. GAZTEON GAUR EGUNGO IRUDIA.....	95
6.3. EGK EZAGUTARAZTEKO BIDEOAK.....	97
6.4. LAN-ARLOKA SAREA SORTU	99
6.5. WEBGUNEEN MANTENUA.....	101
6.6. WWW.EGK.EUS WEBGUNEA KUDEATU	103

6.7. DISEINATZAILE GAZTEEN LAN-POLTSA	105
6.8. PIZTU! BULETIN DIGITALA	107
6.9. SARE SOZIALAK KUDEATU	109
6.10. KOMUNIKABIDEEKIN HARREMANA	112
6.11. BARNE KOMUNIKAZIOA	114
6.12. BESTE LAN-ARLOEKIN KOORDINATZEN DIREN PROIEKTUAK	116
7. PRESIDENTZIA	119
7.1. BATZORDE IRAUNKORRA	119
7.2. LANTALDE TEKNIKOAREN KOORDINAKETA	120
7.3. BATZORDE EKONOMIKOA	122
7.4. EGK-ko BATZAR OROKORRA	124
7.5. ELKARLANA ETA ORDEZKARITZA	126
7.6. GAZTERIA-LEGEA	135
8. ARLO EKONOMIKOA	iError! Marcador no definido.
8.1. 2018 URTEKO AURREKONTUARI BURUZKO AZALPENAK	iError! Marcador no definido.
8.2. 2018 URTERAKO EGK-KO AURREKONTUA	iError! Marcador no definido.

1. SARRERA

Jarraian, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak 2017 urtean aurrera eramango dituen proiektuak aurkezten dira. Jasotzen diren ekimenak eragile ezberdinen ekarpenez osatuak izan dira.

Alde batetik, arlo bakoitza sakonki ezagutzen duten teknikarien ekarpena dago. Bestetik, lan arlo guztien jarraipena egiten duen Batzorde Iraunkorraren ekarpena.

Azkenik, lan-arlo bakoitzaren lantaldeak eginiko ekarpenak eta twitter lehiaketan azaleratutako proposamenak ere kontuan hartuak izan dira.

Egun, Kontseiluak ondoko lan-arloak ditu martxan: enplegua eta etxebizitza, hezkuntza (formala eta ez formala), parte-hartzea, bakea eta bizikidetzatza, berdintasuna, eta, azkenik, komunikazioa.

Hauek guztiak jorratu ahal izateko, erakunde publiko ezberdinekin akordioak eta lankidetzatza hitzarmenak sinatzen dira diru iturriak bermatzeko. Pasa den urtean hauek izan ziren erakunde publikoak: Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritza eta Bake eta Bizikidetzatza Idazkaritza; Bizkaiko Foru Aldundia; Gipuzkoako Foru Aldundia; Emakunde; Bilbao eta Vitoria-Gasteizko Udalak.

Hauetaz gain aurten, badirudenez, beste bi erakunde publiko gehituko dira EGK-k dituen hitzarmenetara: Arabako Foru Aldundia eta Donostiako Udalak.


Egitasmo guztiak aurrera atera ahal izateko, soldatapeko 8 pertsona (Lantalde Teknikoa) eta 9 boluntario (Batzorde Iraunkorra) egongo dira urte honetan. Honetaz gain, kontuan hartu beharko da teknikarietako bat laneko baxa egoeran aurkitzen dela eta bere ordezkotza teknikaria ere kontratatatu egin behar izan dela 2016ko irailetik.

Aurten EGKren erronka nagusiak zeharka jorratu beharrekoak dira. Izan ere, EGKren ekintzetan parte-hartze gehiago lortzea, EGKren ekintzen inpaktua eta hedapena handitzea eta gazteekin komunikazio era berriak sortzea EGKren proiektuen bitartez.

Hauetaz gain, azpimarragarria da aurten ere burutuko den lantalde teknikoaren formakuntza, kasu honetan Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, eta behin onartua

izanda, martxan jarriko den EGKren I. Berdintasun Plana, 2017an Kontseiluak izango dituen berrikuntzen artean.

1. ENPLEGU ETA ETXEBIZITZA



Gazteen autonomia pertsonal zein kolektiboa geroz eta beranduago eskuratzen dugu lan merkatuaren konfigurazio prekarizatuak eta etxebizitza eskubidearen ukazioak bultzatuta. Independentzia materialaren gaineko haustura honek, bizitza proiektu propioa garatzeko baliabide ekonomikoen falta dakar eta gazteen hiritartasuna guztiz ahultzen du. Gehienetan familiarekiko dependentzia ekonomikoa urteetan zehar luzatu eta jendarte-komunitatean gazteek jokatzen duten rola erabat mugatzen du.

Enplegu eta etxebizitza lan-arloak, gazteen errealitate honi erantzuten dioten bi elementu garrantzitsu biltzen ditu bere baitan. Landu ezin daitezkeen beste hainbeste elementurekin batera, gazteen independentzia materialean, askatasunean eta bizitza-kalitatean bere biziko garrantzia duten alorrak dira.

1.1. GAZTEAK ETA EMANTZIPAZIOA



Gazteen egoera inoiz ez da bereziki ona izan etxebizitza, enplegua eta emantzipazioari dagokionez, eta ez dira gutxi izan eskubide honen alde egin izan diren egitasmoak. Haatik, krisi ekonomikoa hasi zenetik, etxebizitza ez lortzea edo galtzea eta enpleguaren prekarietatearen

arazoa orokortu egin da. Ondorioz, gazteek emantzipatzeko dituzten arazoek protagonismoa galdu dute, arazo orokorrago batean nahastuz.

Luze da EGKtik egoera horiek salatzen direla, ez bakarrik azken urteotako egoera ekonomikoren ondorioz, baizik eta are lehenagotik ere pairatutako baldintzengatik ere.

Hori dela-eta, garrantzitsua da gaztez osaturiko etxebizitza eta enplegu lantalde indartsu bat osatzea, gazte hauen nahiak eta beharrak politika publikoetara helaraziz.

Azken urteetan diskurtso sakon eta indartsua landu izan da, eta zenbait kargu politikoren aurrean garrantzizko eragile bilakatzea lortu da. Aurten, ildo bera jarraitu nahi da, lantaldearen ekimenekin jarraituz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Gazteriaren perspektiba batetik gazteriarekin loturiko enplegu eta etxebizitza ekimenak eta neurriak aztertu, administrazioari hausnartutako ondorioak helarazi eta, gazteriaren prekarietate egoeraren aurrean zein emantzipazio prozesuetan bizitegi-igarotze zuzenerako gazteriaren zailtasunen aurrean, gazteria eskubide osoko subjektu bezala aintzakotzat hartzea defendatu eta alternatibak eta hobekuntza-proposamenak sortu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteak eta gazte elkarteak etxebizitza eta enpleguaren arloaren gainean batuko dituen eztabaida gune bat ezarri.

Garapena

EKINTZAK:

Administrazioek garatutako enplegu eta etxebizitza politika publikoen kontrastea egin eta hobekuntza-proposamenak sortu.

Lantaldearen koordinazioa.

Lantaldearen bileren zabalpena egin gazte berriek parte hartu dezaten.

Lantaldearen proposamenei jarraipena eman.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Lantaldearen funtzionamendua eta gazteen parte hartzea: deialdien arrakasta, hausnarketen sakontasuna, kideen proaktibitatea eta proposatutako proiektuak.
- Egindako hausnarketen sakontasuna eta landutako ekimenen bideratzea.
- Administrazio eta kargu politikoaren jarrera gazteen proposamen eta hausnarketen aurrean: eskatutako bilerak onartzen dituzten, eskaerak entzuten dituzten, hauek politika publikoetan barneratzen dituzten, etab.

1.2 EMANTZIPAZIOARI BURUZKO JARDUNALDIA



Bizkaiko Foru Aldundiarekin egindako koordinazio bilera desberdinetan hitz egin da, gazteengan eragina duten hainbat gai lantzeko parte-hartze jardunaldi desberdinak egitea elkarlanean. Bide horri jarraiki, lehen parte-hartze jardunaldi moduan, Europako emantzipazio ereduak aztertuko dituen gazteentzako parte-hartze jardunaldi bat antolatu nahi du EGK-k.

Jardunaldiaren antolaketa eta egikaritzea Parte-hartze eta Enplegua eta Etxebizitza lan-arloek elkarlanean burutuko dute.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Gazteen ikuspegia txertatzea garatuko diren proiektu eta politiketan.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteekin harreman zuzena duten gaien gainean (etxebizitza, enplegua, emantzipazioa...) parte-hartze jardunaldiak egitea.
- Gazteen parte-hartzeko joeretan eragitea.
- Administrazioa eta gazteriaren arteko zubi-lana egitea.
- Gazteak politika publiko eta administrazioarengana gerturatzea.
- Gazteek emantzipazioari buruz duten iritzia bildu eta hausnarketa bideratu.
- Europako emantzipazio ereduaren azterketa egin.

Bizkaiko Foru Aldundiari jardunaldiaren proposamena egin.

Jardunaldia burutu.

[illegible]

Ebaluazioa

- EGK-k gazteria eta administrazioaren arteko zubi-lana praktikara eramango du. Ostean beronen ebaluazioa egingo da eta jardunaldiaren inguruko irakurketa elkarbanatuko da BFArekin. Jardunaldiaren ebaluazioan ateratako ondorioak oinarri, BFArekin aurrera begira gazteentzako hainbat parte-hartze jardunaldi antolatzeko bideak lantzen jarraituko da.

13. FORMAKUNTZA DUALA HIRIBURUA



Europa mailan erreferente den formazio eredua errotzen ari da EAEn. Nagusiki lanbide heziketan ezarri da, baina unibertsitate mailan ere aplikatzen hasia da.

Formakuntza duala euskal gazteriarentzat aukera ona izan ote litekeen baloratzeko gaur egungo egoera aztertu nahi da. Izan ere, formakuntza duala ikasketak eta lan munduaren arteko zubiak eraikitzen lagunduko duen sistema bat dela aurreikusten da. Hori dela-eta, alor hau lantzen den lehen urte honetan, Hiruburu bat antolatu nahi da. Ekintza hau aproposa da egungo egoeraren diagnostikoa egiteko, hainbat eragile harremanetan jartzeko eta erakundeei ekarpenak egin ahal izateko EGK-k beharrezko duen informazioa biltzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Euskadiko formakuntza dualaren egoeraren azterketa egitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Formakuntza dualean parte hartzen duten hainbat eragileren arteko koordinazio eta hausnarketarako gune bat sortzea.
- Formakuntza hori burutu duten gazteen esperientziak biltzea.
- Formakuntza honen indar-gune eta ahulguneak identifikatzea.
- Administrazioei formakuntza hau hobetzeko proposamenak egitea.
- Gazteak, teknikariak eta politikariak formakuntza dualaren inguruan eztabaidatzeko eta hausnartzeko gune bat sortu.

Euskadiko formakuntza dualaren datuak eta errealitatea ezagutu.

Formakuntza dualeko elkarteekin harremanetan jarri.

Hiruburuaren egitura prestatu.

Hiribururako beharrezko materiala prestatu eta parte hartzaileekin harremanetan jarri.

Hiruburuaren zabalkundea, gauzatzea eta ondorioak atera

Urtearen ebaluazio 2018ko plangintzaren onespena egin.

[illegible]

Ebaluazioa

- Proiektuaren funtsa Hiruburu baten eraketa izanik, garrantzia beronen funtzionamendu eta lorpenei emango zaie.
- Parte hartzaile kopurua eta hauek egindako ekarpenen aberastasuna.
- EGK-k formazio dualari buruz diskurtso bat eratzeko behar dituen irizpideak eskuratu izana.

1.4. ENPLEGU ARLOAN LAN EGITEN DUTEN ERAGILEEKIN HARREMANA



Enpleguaren alorrean eragile askok eta anitzek dute zer esana. EGKrentzat funtsezkoa da eragile guzti hauekin harremanetan egotea. Alde batetik, gazteen kasuan, hauen beharrak lehen eskutik ezagutzeko. Bestetik, eragile publikoekin, gazteen iritzia hauengana transmititzeko eta erabaki publikoetan ahalik eta gehien eragiteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGKren eta enpleguko arloan lan egiten duten elkarteen, instituzioen, administrazioen eta arduradunen artean harremana sortu.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren lana sozializatzea eta ikusgai bihurtzea.
- Gazteriaren perspektiba bat eman beste erakunde eta administrazio batzuen proiektuetan, EGK erreferente bihurtuz.
- EGK-ko proiektuetan pertsona gazte berrien parte hartzea lortu.
- EGK-ko elkarten artean enplegua lantzen dutenekin harremana sendotu.
- Eskatzen duten elkarteei formakuntza eman eta elkarteei formakuntza eskaini enplegu arloan

Garapena

EKINTZAK:

Enpleguaren arloko agenteekin (elkartek eta administrazioak) bilerak egin harremanak sendotzeko eta berriak egiteko.

EGK-ko eta EGK-koak ez diren elkarten artean gazteen parte hartzea bultzatu enplegu proiektuetan.

Enpleguaren arloan EGK-k landu ez dituen arazoak dokumentatu

EGKrentzat interesgarriak diren proiektuetan eta jardunaldietan parte hartu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Eragile publiko eta pribatu esanguratsuenekin biltzea.
- Egindako kontaktu berri kopurua.
- EGK eragile ezagun horien artean ezagutzera eman izana.

1.5. GAZTELABEL



Gaztelabel ekimenaren baitan, EGK-k politika publikoak ebaluatzen ditu, hauek, gazteen behar eta eskubideei egokitzen zaizkion ebaluatzeko. Horrela bada, Gaztelabel ziurtagiria ematen die.

Aurtengo honetan, Gasteizko Udalak 23 urtez azpiko gazteei bideratutako Hazia 23 programa aztertuko da. Ekimen honen funtsa formaziorik gabeko 25 gazte artatzea da, jada aurretiaz Gasteizko udalak dituen enplegu politika aktiborako programen erabilera pertsonalizatuta eskainita.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Hazia 23 programak Gasteizko formaziorik gabeko gazteen laneratze beharrak asetzen dituen ebaluatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gaztelabeleko kontraste agente berriak formatu.
- Programa hobetzeko proposamenak egitea.

Garapena

EKINTZAK:

Ebaluatuko den neurriaren arduradunaren administrazioarekin harremanetan jarri eta prozesua hasteko beharrezkoak diren lehen dokumentuak sinatu. Gaztelabel 2018ko egutegia finkatu.

Agente kontrasteen taldea sortu (gazteak eta teknikariak). Agente kontrasteekin bilera bat egin prozesua azaltzeko.

Neurria aurkeztu duen administrazioari egin behar duen autokonstrastearen prozesua azaldu.

Autokonstrastea eta agenteen kontrasteak bildu.

Txosten bateratua egin. Kontraste agenteekin eta administrazioarekin beharrezkoak diren bilerak egin.

2019 GazteLabelaren onarpena.

kaskarrak salatzeke; eta, bestetik, gazteen duintasun sozioekonomikoa aldarrikatzeko. 2018an zehar protokolo hori beharren arabera eguneratuko da eta gazte baten lan istripu bat gertatuz gero, aktibatu.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Maiztasunez gertatzen diren eta gazteoi bereziki jotzen diguten gertaerak eta haien arrazoiak publikoki salatu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazte langileen lan istripuen ondorioko heriotzen errudun diren prekarizazio eta beste lan baldintzak salatu.
- Gazteriaren duintasun sozioekonomikoaren oinarriak aldarrikatu, lan baldintzak eta lan osasuna hobetzeko

Garapena

EKINTZAK:

Protokoloa eguneratu hurrengo urteko EGK-ko batzarrean aurkezteko.

Lan istripuen ondorioko gazte heriotzen eta istripuen salaketa.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Balizko lan istripuak gertatutakoan jakinaren gainean egotea eta prozedura hau hobetu izana.
- Protokoloa aktibatu izana beharrezkoa izan bada.

1.7. ENPLEGU ARLOKO DATA ESANGURATSUEN EGUTEGIA



Lan eta etxebizitzaren inguruko aldarrikapenei lotutako nazioarteko egunak baliatzen ditu EGK-k bere mezua zabaltzeko. Egutegi hori osatzen joango da eta data esanguratsuetan dagokion manifestua eta komunikazio kanpaina egingo da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Urtean zehar enpleguarekin zerikusia duten data garrantzitsuak markatu eta egun horietan manifestu edo diskurtsoa plazaratu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Data esanguratsuen garrantzia azpimarratzea eta gaur eguneko egoerarekin lotzea.
- Gazteriak egun horiek ezagutzea.

- EGKn parte hartzea bultzatzeko tresna bezala erabiltzea.

Garapena

EKINTZAK:

Emakume eta gizonen arteko soldata berdintasunaren aldeko Europako egunean (2018an otsailaren 22an) Ibilbide Moreak txostenaren zati bat berreskuratu eta egungo datuak plazaratu.

Lan Osasunaren Nazioarteko egunaren manifestua berriro eta atxikimenduak eskatu. Lan Osasunaren Nazioarteko egunean manifestua zabaldu.

Maiatzaren 1ean, Langilearen Egunean gazteriaren egoera azaleratu. Sare sozialen bitartez gazteria animatu kontatzera haien prekarietate egoerak.

Urriaren 7ko manifestua eguneratu eta atxikimenduak eskatu.

Urriaren 7an, Lan Egokiaren egunean manifestua plazaratu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Egindako kanpainen difusio maila eta hedapena.
- komunikabide edo gizarte eragileen arreta deitzea.
- Egun gehiago identifikatu izana.

1.8. EGUNEROKO LANA



EGKn lan-arlo bakoitzetik kanpo egin beharreko lanak, EGKren funtzionamendu egokia bermatzeko eta honen helburu orokorrak lortzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren funtzionamendua bermatu beste lan eremuekin elkarlan egiten eta urtean zehar heltzen diren eskaera generikoei erantzuna emanez.

HELBURU ZEHATZAK:

- Pentsarekin lan egin hauek eskatzen dutenean.
- Gazteria Planak eta beste gazteria dokumentuen jarraipena egin.

- Beste lan arloen lanaren kontrastea egin.
- Lan taldearen formazioan parte hartu.
- Lan arloarekin zerikusia duten aholkularitzak egin.
- Batzorde Iraunkorrarekin eta lankideekin harremana/lankidetzak.
- Memorien eta Plangintzen kudeaketa eta ebaluazioa.
- EGKren funtzionamendurako beharrezkoak diren bileretan parte-hartu.

Garapena

EKINTZAK:

- Prentsarekin lan egin hauek eskatzen dutenean.
- Gazteria Planak eta beste gazteria dokumentuen jarraipena egin.
- Beste lan-arloen lanaren kontraste egin.
- Egutegiak hala eskatzen duenean ekintza desberdinak burutu
- Aholkularitza eman.
- Memoriak eta 2018 urterako plangintzak prestatu.

2. HEZKUNTZA



Pertsonen garapenerako ezinbestekotzat jotzen den osagaia da hezkuntza. Lan-arlo honek, bi lan-ildo nagusi biltzen ditu: hezkuntza ez-formala edo astialdia eta hezkuntza formala.

Hezkuntza ez-formala hezkuntza sistematik kanpo aurkitzen diren araututako ikaskuntza-prozesuek osatzen dute. Astialdi Foroaren bitartez, EAEko hainbat elkarte eta eragileren elkarlanerako gunearen bitartez, EGK-k Astialdiaren garapena bultzatzea du helburu. Aisialdi hezitzaileko elkartegintza indartu nahi da, balioen heziketa eta astialdiaren bitarteko gizarte eraldaketa bermatuko duten ekimenak sustatuz.

Hezkuntza formalean, unibertsitateko gazte elkartegintza eta ikasle ordezkartzako egituren bitartez, ikasleen beharrak, kezkak edo proposamenak jasotzen dira. Ondoren, errealitatearen azterketarekin batera, aldarrikapenak eta hobetzeko proposamenak adostu eta ekimenak gauzatzen dira.

Bi kasuetan, administrazio eta ikasleen arteko zubi-lana egiten da gazteen ahotsa entzuna izateko.

2.1. ASTIALDI FOROEN KOORDINAZIOA



Astialdi Foroa EAEko hainbat elkarte eta eragileren elkarlanerako gunea da. Lantalde honek Euskadiko Astialdiaren garapena bultzatzea du helburu, elkarren arteko koordinazio eta bitartekaritza, ekimenen oinarritzko aholkularitza, elkarren arteko hausnarketa, formazioa eta sensibilizazioa abiapuntutzat hartuta. Astialdiari lotutako elkartegintza indartu nahi da, baita balioen heziketa eta astialdiaren bitarteko gizarte eraldaketa bermatutako ekimenak bereziki sustatu ere.

Lana bideratzeko, hiru Lurralde Historikoetan banatzen da, bakoitzean foro bana baitago. Denei eragiten dieten arloetarako ordea, guztiak biltzen dira.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Astialdi Foroko lantaldea koordinatzea eta sendotzea.
- Astialdiaren ikusgaitasuna eta aldarrikapena bermatzea.

HELBURU ZEHATZAK:


- Esperientziak elkartrukatzea.
- Erakunde publikoekin bitartekaritza egitea.

Garapena

EKINTZAK:

-  Hiru Astialdi Foroen batzarrak koordinatu.
-  Tarteko ebaluazioak.
-  2019ko plangintza zehaztu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
											
											
											

Ebaluazioa

- Ekintzak gauzatzea.
- Helburuak betetzea.

2.2. ASTIALDIKO IKASTAROEN KANPAINA

Astialdiko ikastaroen eskaintzari buruzko nondik norakoak gazteei helarazteko, urtero bezala informazio kanpaina bat osatuko da. Hau www.astialdiforooa.org webgunean argitaratuko da gida interaktibo baten bitartez. Bertan, informazio espezifikoa jasotzeaz gain, EAEko eskola bakoitzaren harremanetarako bideak eskainiko dira.

Helburuak

- EAEko eskolen ikastaroen zabalpena.

Garapena

EKINTZAK:

Astialdiko ikastaroen informazioa bilketa.

EAEko ikastaroen zabalpena online formatuan.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Webguneko kontsulta kopurua ikastaroen zabalpenean zehar.

23. UDAKO KANPAINA



Astialdiko boluntario gazteek antolatutako udako ekintzen ezaguera eta zabalpena helburu duen kanpaina. Bertan, Astialdi Foroetako eragileez gain, EAEko edozein astialdi talderen ekintzen zabalpena burutzen da, ahalik eta gida osatuena sortzeko. Aurten ere udako eskaintza hau www.astialdiforoa.org webgunean jasoko da. Online gidaz gain, kanpainaren nondik norakoak jasoko dituen paperezko euskarria ere banatuko da: informazio triptikoa.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK:

- Astialdi hezitzailea zer den ezagutzera eman.
- Astialdi taldeen udako eskaintza gizarteratu.

Garapena

EKINTZAK:

- Datuen bilketa.
- Webgunean informazioa argitaratu.
- Kanpainaren zabalpena.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK:

- Aisialdi hezitzailea zer den ezagutzera eman.
- Astialdi Foroak aurrera eramaten dituen ekimen eta hausnarketak ezagutzera eman.

Garapena

EKINTZAK:

- Webgunearen kudeaketa lanak.
- Webgunearen kudeaketa antolatzeke lan-saio bereziak.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Urteko bisita kopurua.
- Webgunearen erabilgarritasuna eta egunerokotasuna.

2.5. ASTIALDIKO ESKOLEN ETORKIZUNA

EAEko astialdi eskola batzuk oraindik Lanbideko formakuntza-zentro izateko aldaketa fasean daude, hainbat oztopo topatu dituztelako bidean. Aurten ere, formakuntza-zentro izan nahi

duten eskolak aldaketa burutzeko laguntza eskaintzea eta pausoa eman nahi edo ezin duten eskolen egoera zein izango den argitzea izango dira ardatzak.

Bestetik, formakuntza-dekretua irailean hasi zen eta trantsizioan gertatutako aldaketak ahalik eta hoberen ezagutzeko helburuarekin, koordinazioa bultzatuko da Eusko Jurlaritzak, hiru lurraldeetako aldundiekin eta Lanbiderekin.

Urte osoan zehar jarraitua izango den ekimena izanda, eskolen eskura jarriko dira behar beste indar eta baliabide, aurten dauden zalantza eta nahasmenak argitzea baita asmoa aurrerapausoak ematen joateko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Astialdiko eskolen etorkizuna zein izango den argitzea eta administrazio zein eskolen arteko informazio-trukea egokia izatea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Astialdiko eskolen legediari buruzko informazio eguneratua izatea.
- Eskolak Lanbideko formakuntza zentro bilakatzea.

Garapena

EKINTZAK:

- Eusko Jurlaritzarekin koordinatu.
- Lanbideko teknikariarekin harremanetan egon.
- Eskolekin informazio eta proposamenak.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Ahalik eta eskola gehien formakuntza-zentro bilakatzea.
- Eusko Jaurlaritza eta Lanbiderekin dauden zalantzak eta ezjakintasunak argitzea.

2.6. ATERGUNE: ATERPETXE, LANDA ETA KANPINEN ATARIA



2016ko urte amaieran Euskadiko gazte eta gazte elkarteek eskura dagoen aterpetxeen ataria sortu zen. Ordutik hona atariaren hobekuntzarako lanak egitea izan da asmoa bai bilatzaile bat txertatuz eta baita aterpetxeen kopurua handiagotuz. Helburua, gai honen inguruko erreferentziatzko baliabidea bilakatzea da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- atergune.astialdiforaa.org atariaren jarraipena burutzea (bisita eta erabiltzaile kopurua).

HELBURU ZEHATZAK:

- Aterguneren kudeaketaz arduratzea: espazio berriak txertatu, akatsak zuzendu, etab.
- Bilatzailea txertatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Bilatzailea txertatu bilaketak errazteko.

Erabiltzaileentzako eskura egongo diren espazioak txertatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Espazio gehiago identifikatu eta atarian txertatu.
- Atariaren bisita-kopuruaren zenbatekoa.

2.7. BOLUNTARIOTZA KANPAINA 2018

Hainbat pertsona boluntariok lan handia egiten dute gizartearentzako proiektu eta ekintza aberasgarriak gauzatuz. Gaia gizartean zabaltzeko helburuarekin, Astialdian parte hartzen duten hainbat eragile eta pertsona boluntarioekin batera ondorengo kanpaina burutuko da. Horretarako, boluntarioen esperientziak batzea eta prozesuaren amaieran topaketa bat egitea da kanpaina honen ideia. Ekimen honekin hirugarren sektorean lanean aritzen diren elkarte eta eragileen aitorpena lortu nahi izan da.

Lan honen errekonozimenduaz gain, gazteriari zuzendutako mezuek hartzen dute garrantzia. Alde batetik, elkarteen boluntarioen lana goraipatuz; eta, bestetik, parte-hartzerako dauden beste espazio eta ereduak ezagutzea zabalduz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Hirugarren sektorean lanean aritzen diren elkarte eta eragileen aitorpena burutu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Hirugarren sektoreko elkarte, talde zein pertsonen eskerrak adieraztea.
- Boluntariotzaren grina piztea.
- Boluntarioen topaketa bat bideratzea.

Garapena

EKINTZAK:

- Boluntariotzaren inguruko materiala (bideoak, iritziak, argazkiak, etab) sare sozialen bidez batu.
- Boluntariotza topaketan arituko diren pertsonak bilatu eta aurkitu.
- Boluntariotzaren inguruko topaketa burutu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Boluntariotzaren inguruan sortzen diren esperientziak batu.
- Boluntariotzaren inguruko topaketan agertutako ondorioak aztertu.

2.8. HEZITZAILEENTZAKO GIDAK: DROGA-MENDEKOTASUN GIDA

Droga-mendekotasunari buruzko materiala sortuko da hezitzaileentzako erreferentziako baliabideak izateko helburuarekin. Barne-hartzailea izatea eta gazteria osora iristeko proiektuak aurrera eramateko beharrezkoa den begirada azaltzea da droga-mendekotasunaren inguruko gida honen oinarria.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Gazteentzako eta hezitzaileentzako baliabideak sortu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Hezitzaileek gazteekin droga-mendekotasuna lantzeko baliabide bat sortzea.
- Gazte elkartegintza kontzientziatu eta droga-mendekotasuna prebenitzeko arrisku txikitze logika barneratua izatea.

Garapena

EKINTZAK:

Droga-mendekotasuneko gida: kontrastea, txostena eta zabalpena.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Droga-mendekotasunari buruzko gaiaren inguruan gogoeta lantzea.
- Droga-mendekotasunaren gaian hezitzaileentzako material gehigarria ematea.

2.9. ADMINISTRAZIOEKIN KOORDINATU

Eguneroko gaiek eskatuta administrazioekin koordinazio lanak burutu: lan-saio eta bilerak, telefono deiak, etab. Hezkuntza arloari dagokionez, Eusko Jaurlaritza eta EAEko aldundiak izango dira hartzaileak.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Administrazioekin koordinazio egoki eta egonkorra bideratu.

Garapena

EKINTZAK:

Eusko Jaurlaritza eta Aldundiekin batera koordinazio lanak burutu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Urtean zehar informazio-trukaketa burutzea.
- Elkarren arteko harremanaren ondoriozko koordinazio hobetzea.

2.10. HEZKUNTZA FOROA

Hezkuntza formalaren arloan, EGKren diskurtsoa eta bideaosatzen lagunduko duten ikasle-elkarte, kontseiluetako ordezkari eta maila indibidualean parte hartzen duten gazteekin batera, eztabaidarako gunearekin lanean jarraituko da. Hauekin batera hezkuntza-arloko gaiak eztabaidatu eta elkarren arteko adostasunean oinarritutako proposamenak lantzeaz gain, hezkuntza-arloko proiektuak zehatzak definitzea da helburua.

Hezkuntza-arlotik harremana eta elkarreragina sortzeaz gain, lan horren bitartez hezkuntza-arloko administrazioari proposamen zehatzak helaraztea da helburua gazteon egoeraren berri emateko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Ikasleonez kezka eta beharrak landu proiektu zehatzen bitartez, gerora hezkuntza formaleko instituzio eta arduradunei lanean jasotako ondorio eta proposamen zehatzak helaratzeko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Ikasleonez beharren azterketa bideratzea hezkuntza-arloko gaiei buruzko hobekuntza sustatzeko.
- Ikasleei lan-eskubideei buruzko formakuntza eta informazioa helaraztea unibertsitate-esparruetan.

Garapena

EKINTZAK:

- Hezkuntza Foroa koordinatu eta bertako beharrei erantzun.
- Hezkuntza-arloko eragileekin eta instituzioekin harremanak sendotu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Proposatutako proiektuak burutzea eta proposamenei zabalpena.
- Plataformaren funtzionamendua, bilera kantitatea eta kalitatea. Beste kideen proaktibitatea.
- Aldarrikapen eta diskurtsoen eragina (jendarte eta komunikabideetan).

- Administrazioarekin izandako bilerak.

2.11. ESKOLA KONTSEILUA

Aurten ere, EGK-k, Euskadiko Eskola Kontseiluan unibertsitatekoa ez den irakaskuntzako programazio orokorrarekin zerikusirik duten giza eragileek parte hartzeko organo gorenean, parte hartuko du. Bertan, EAE mailan irakaskuntza garatzen duten arau eta irakaskuntzaren egoeraren inguruko txosten orokorrei ekarpenak egiten zaizkio, beti ere gazteen iritzia kontuan izanda.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Euskadiko Eskola Kontseiluan gazteen ahotsa, kezka eta ekarpenak plazaratzea.

Garapena

EKINTZAK:

Euskadiko Eskola Kontseiluko deialdietan parte hartu eta jasotako dokumentuen ekarpenak burutu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bileretan parte hartu izana.
- Egindako ekarpen kopurua.

2.12. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO UDAKO IKASTAROAK

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak aurten, Euskal Herriko Unibertsitatearekin (UPV/EHU) duen elkarlan hitzarmenaren bidez, unibertsitateak antolatzen dituen udako "Unibertsitateak bizi zaitu!" ikastaroetan parte hartuko du. Helburua EGKren errealitatea eta egiten den lana erakustea eta zabaltzea da, han ikasten duten ikasleen interesekin konektatzeko aukera emanaz eta parte-hartzera animatuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- UPV/EHUko errealitatera hurbildu entitateen elkarlana sustatuz.

HELBURU ZEHATZAK:

- UPV/EHUko udako ekintzan parte-hartze aktiboa izatea.
- Ikasleei Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko esperientziari buruzko konferentzia ematea.

Garapena

EKINTZAK:

UPV/EHUko udako ikastaroen prestakuntza.

UPV/EHUko uda ikastaroa: Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren esperientzia.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Hobekuntzarako proposamenak jaso.

2.13. UNIBERTSITATEKO ELKARTEEN ARTEKO TOPAKETA

UPV/EHUko ikasle elkarteek hainbat motatako ekimenak bideratzen dituzte ikasle eta, orokorrean, gazteen intereserako izaten direnak. Horiek gizarteratzeko helburuarekin eta hainbat entitateren arteko elkarlana bideratzeko, unibertsitatean topaketa bat bideratzea beharrezkoa da. Horrela, elkarte bakoitzak bere proiektu, planteamendu eta lan egiteko esparrua azaltzeko eta bestekin konpartitzeko aukera izateaz gain, unibertsitate mailan dagoen errealitatea aztertzeke eta ulertzeke bidea izango du.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- UPV/EHUko elkarteak ezagutzera ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- UPV/EHUko entitateen arteko topaketa bideratu euren errealitatea ezagutzera emateko.
- Unibertsitate mailan dauden entitateen elkarlana sustatu.

Garapena

EKINTZAK:

UPV/EHUko elkarteekin harremanetan jarri eta topaketa prestatu.

UPV/EHUko elkarten topaketa.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- UPV/EHUko lan egiten duten eragileen errealitatea erakutsi.
- UPV/EHUko elkarten elkarlana sustatu eta lan espazio berriak sortzeko aukera eskaini.

2.14. EGUNEROKOTASUNA

Arlo bakoitzaren lan zehatzetatik aparte, teknikariak egoitzaren kudeaketa lanetan lagundu behar dute: telefonoari arreta eta deribazioa; hurbiltzen denari arreta eta deribazio zerbitzuak eskaini; materiala, dokumentazioa, eskutitzak, emailak... jaso artxibatu eta deribatu; oinarritzko bulego materialaren egoera aztertu eta erosketa eskaerak bideratu; informatika zerbitzuaren mantenuan lagundu; agenda egunean eraman eta koordinatu, besteak beste.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Egoitzetako lan teknikoak eta kudeaketa zereginak aurrera eraman.

Garapena

EKINTZAK:

Egunerokotasuneko lanak.


KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Hobekuntzarako proposamenak jaso.

3. PARTE-HARTZE



Parte-hartze lan-arloa 2013ko uztailan sortu zen EGK-ko Batzar Orokorrean onartutako “Indartzen” plan estrategikoan agindutakoa beteta.

EGK gazteriaren eta administrazio publikoen arteko zubia izaki, parte-hartze arloaren helburua politika publikoen lanketan gazteen parte-hartzea sustatzea da. Horretarako, planteatutako ekimenen bitartez parte-hartzea modu praktikoa sustatzeaz gain, gazteriaren parte-hartzearen errealitatea jaso, horren inguruko hausnarketa egin eta hobekuntzak proposatuko dira.

Arlo honek lan teorikoa eta praktikoa uztartzen ditu, beraz, lana bulegotik kanpo egingo da askotan.

3.1. EGK SENDOTZEN

EGK sendotzeko burutuko den proiektua. EGK osatzen duten elkarteekin bildu, beraien egoera aztertu eta ekarpenak jaso ostean, azken hauek EGKren lan dinamikan gehiago inplikatzeko proiektua da. Honez gain eta barne dinamika indartzen jarraituaz, lan-arloetako lantaldeak indartzea izango da proiektuaren beste erpin nagusia. EGKn dauden elkarteetako gazteak eta bertatik kanpo dauden elkarteetako gazteak lantaldeetara erakarriko dira.

Sozializazioarekin jarraituz, EGKtik kanpo dauden elkarteekin harreman sare berriak sortzeko saiakera ere egingo da. Eragile hauek EGKren dinamika ezagutu eta beronen parte bihurtu daitezten.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGK-ko elkarteen egoera aztertu. Azken hauek EGKren etorkizuneko proiektuetan eta lan jardunean parte-hartzera animatu.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-ko lan-arloetako lantaldeak indartu. Berauetan elkarte eta entitate desberdinen presentzia bermatu.
- EGKren sozializazioan sakondu. Bertan ez dauden eragile zein norbanakoekin harreman sareak sortu.
- Elkarte berriak EGKn sartzeko eragin.

Garapena

EKINTZAK:

EGK-ko eragile, kanpoko eragile edo interesa duen gazte ororekin bilerak eta harreman sareak sortu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Proiektu honetan elkarte andanarekin bilduko da EGK eta bide horretan EGKren indartze prozesu honen ebaluazioa urtea amaieran egingo da. Urte osoa erabiliko da indartze prozesu hau bultzatu eta harreman sareak sendotzeko.
- Urte amaierako ebaluazioan, batetik EGKren barne dinamika zein modutan garatu den ebaluatuko da, eta elkarteek 2017an baino gehiago parte hartu duten aztertu.
- Bestetik lan-arloetako lantaldeen egoera aztertuko da eta berauen dinamismoaren jarraipena egingo da.
- EGKra inguratu diren elkarte berriei buruzko balantzea egingo da.

3.2. PLAZANDRE

Sexu/genero sistemak emakumeak eremu pribatuan kokatu izan ditu historikoki. Zentzu honetan emakumeek espazio publikoa okupatu izan dutenean edota jendaurreko jarduna egin izan dutenean, balioespena lortu behar izan dute egitura horren aurka joan ahal izateko. Hori dela eta, oraindik ere, gizonezkoak dira eremu irekietako epizentroa. Plazagizonak alegia.

Fenomeno honen ondorio da euskal kulturaren erreferente gehienak gizonak izatea; bai politikan, bai bertsolaritzan baita kirolean ere. Hori dela-eta, gutxi dira 'Plazandre' diren emakumeak.

Jarduera hauetan, hainbat pertsonaiarentzat espazio publikoan emakumea izatea zer den aztertu nahi da. Izan dituzten esperientzia, beldur eta oztopoak konpartitzeko espazioa sortu nahi da. 'Nor' izatea eremu publikoan lekua izatearekin estuki lotuta baitago.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Emakumeek esfera publikoan duten parte-hartzeari buruz hausnartu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Pertsonaia publikoak diren emakumeen eta gazteen arteko elkarrizketa sustatu.
- Espazio publikoan diharduten emakumeek egunerokotasunari aurre egiteko dituzten arazoei erreparatu eta azken hauen inguruan hausnartu.
- Gazteei beraien ekarpen, kritika eta proposamenak egiteko aukera eman.

Garapena

EKINTZAK:

#Plazandre formatuaren diseinua egin.

#Plazandre antolatu.

Ekitaldia aurrera eraman

Gazteen proposamenak landu eta txostena prestatu.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Deustuko Unibertsitateko ikasleak aholkatzea herritarren parte-hartzearen inguruko eragin plan txiki bat diseinatu, burutu eta ebaluatzeko.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren irismena handitzea.
- Profil anitzeko gazteak ezagutu eta interesgarriak izan daitezkeenekin harremanak egitea.
- Euskadiko gazteriaren parte-hartzea sustatzea.

Garapena

EKINTZAK:

-  Irakasgaian zehar, ikasle-taldearekin zein irakaslearekin bildu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

Proiektuaren ebaluazio-irizpideak irakasgaian ezarrita daudenak izango dira. Bestetik, proiektuaren balorazio orokortu bat egingo da irakasle zein ikasleekin.

3.4. EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN PROGRAMA



Aurten ere, Parte-hartze teknikariak Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren hautaketa batzordean parte hartuko du. Hurrengo betebeharrak izango ditu:

- Deialdian parte hartu duten pertsonen lehen hautaketa egitea.
- Lehenengo hautaketa gainditu dutenekin egingo diren informazio eta hautaketa jardunaldietan parte-hartze aktiboa izatea.
- Parte-hartze dinamikak martxan jartzea.
- Kooperazio proiektuak burutu ostean, esperientziaren ebaluazioan parte-hartzea.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Kooperazio proiektuetan parte hartuko duten gazteak hautatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren irismena handitzea.
- Profil anitzeko gazteak ezagutu eta interesa agertu dutenekin harremanak finkatzea.
- Euskadiko gazteriarren parte-hartzea sustatzea.
- Lankidetzaren baloreak Euskadiko gazteen artean sustatzea.

Garapena

EKINTZAK:

-  Lehen hautaketa egiteko jardunaldia.
-  Hautaketa jardunaldiak.
-  Informazio jardunaldiak.
-  Ebaluazio jardunaldiak.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
											
											
											
											

Ebaluazioa

Eusko Jaurlaritzak proposatutako irizpideen arabera balorazioa egingo da. Bestetik, gazteekin edukitako hartu-emanen gaineko irakurketa egingo da.

3.5. EMANTZIPAZIOARI BURUZKO JARDUNALDIA

Bizkaiko Foru Aldundiarekin egindako koordinazio bileretan hitz egin da gazteengan eragina duten hainbat gai lantzeko parte-hartze jardunaldiak egitea elkarlanean. Bide horri jarraiki, lehen parte-hartze jardunaldi moduan, Europako emantzipazio eredu desberdinak aztertuko dituen

gazteentzako parte-hartze jardunaldi bat antolatu nahi du EGK-k. Jardunaldiaren antolaketa eta egikaritzea Parte-hartze eta Enplegua eta Etxebizitza lan-arloek elkarlanean burutuko dute

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Gazteen ikuspegia txertatzea garatuko diren proiektu eta politiketan.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteekin harreman zuzena duten gaien inguruan (etxebizitza, enplegua, emantzipazioa...) parte-hartze jardunaldiak egitea.
- Gazteen parte-hartzeko joeretan eragitea.
- Administrazioa eta gazteriaren arteko zubi-lana egitea.
- Gazteak politika publiko eta administrazioarengana gerturatzea.
- Gazteek emantzipazioari buruz duten iritzia bildu eta hausnarketa bideratu.
- Europako emantzipazio eredu desberdinen azterketa egin.

Garapena

EKINTZAK:

- Bizkaiko Foru Aldundiari jardunaldiaren proposamena egin.
- Jardunaldiaren nondik norakoak zehaztu eta deialdia adostu BFArekin.
- Jardunaldia burutu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

EGK-k gazteria eta administrazioaren arteko zubi-lana praktikara eramango du. Ostean beronen ebaluazioa egingo da eta jardunaldiaren inguruko irakurketa elkarbanatuko da BFArekin. Jardunaldiaren ebaluazioan ateratako ondorioak oinarri, BFArekin aurrera begira gazteentzako parte-hartze jardunaldi desberdinak antolatzeko bideak lantzen jarraituko da.

3.6. PARTE-HARTZEA EUROPAN TXOSTENAREN ARGITALPENA

Parte-hartze lan-arloaren helburua politika publikoen lanketan gazteen parte-hartzea sustatzea da. Horretarako, planteatutako ekimenen bitartez, parte-hartzea modu praktikokoan sustatzeaz gain, gazteriaren parte-hartzearen errealitatea jaso, horren inguruko hausnarketa egin eta hobekuntza proposamenak egingo dira.

Instituzio zein hainbat eragilek gazteengana iristeko duten beharraren aurrean, beharrezkotzat jo da gazteengana iristeko parte-hartze ereduaren inguruko hausnarketa lan bat egitea. Bide horretan, eta EAEn eredu berriak proposatze aldera, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak Europako parte-hartze eredu eta esperientzia berriak barnebiltzen dituen txostena argitaratuko du 2018an.

- Gazteek administrazioarekin duten harremana aztertzea. Gazteen parte-hartzea sustatzeko Europar dauden eredu desberdinak islatzea, EAEn eredu berriak proposatzeko aldera.

- Parte-hartzea sustatzeko modu desberdinak ezagutarazi.
- Hemen ditugun parte-hartze moldeak Europako eredu desberdinekin alderatu.

Txostena 2018an garatuko da eta berau aurkezteko ekimenak instituzio ezberdinekin koordinatuko dira.

Txostena amaitu.

Diseinatzaileari bidali eta txostenaren diseinua burutu.

Txostena instituzioekin aztertu.

Txostena publiko egin.

[illegible]

Ebaluazioa

Lan honetan aztertu diren parte-hartze eredu eta praktika egoki hauen ezarpena baloratuko da. Ostean, horren inguruko hausnarketa bultzatuko da EGK eta instituzio desberdinen artean.

3.7. ARABAKO GAZTEEN LURRALDE KONTSEILUA

Arabako Foru Aldundiarekin elkarlanean eraturiko Arabako Gazteen Lurralde Kontseiluan parte hartuko du EGK-k, Lurralde Historikoko zenbait gazte eragile eta profesionalekin batera. Denen artean Arabako Foru Aldundiak proposatutako gazteria politiken kontrastea egingo da. Bertan EGK-k gazte eragile bezala bere ekarpenak egingo ditu.

Bestalde, Arabako Gazteen Lurralde Kontseiluan parte-hartzeaz gain, EGK-k entitate berri honen zabalpena eta sozializazioa sustatuko du Arabako eragileen artean.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Arabako Foru Aldundiak garatzen dituen gazteria politikak kontrastatuko dituen Lurralde Kontseiluan parte-hartzea eta ekarpenak egitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteen ikuspegitik Arabako Foru Aldundiaren politika publikoak aztertu, landu eta doikuntzak proposatu.
- Administrazioarekiko gertutasuna sustatu.
- Arabako gazteen ahotsa Foru Aldundiaren politiketan islatu.
- Profil anitzeko pertsona gazteek osatutako kontseilu bat osatu.

Garapena

EKINTZAK:

Arabako Gazteen Lurralde Kontseiluan parte hartu. Honen zabalpenean lagundu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

EGK-k Arabako Gazteen Lurralde Kontseiluaren jarraipena egingo du Arabako Foru Aldundiarekin batera. Beronek gazteria politiketan duen eragina ebaluatuko da, baita eragile eta profesionalek bertan duten parte-hartzea ere.

3.8. "BILBO ZURE ETXEA" KANPAINA OSTEKO GAZTE GALDETEGIA



Bilboko Udalak hiriko gazteen gaueko aisi eredua aztertzen eta hainbat alternatiba proposatzen dihardu aspaldidanik. Aisi eredu jasagarri eta garbiago bat lortzeko bidean, Bilboko Udalak martxan jarri duen "Bilbo zure etxea" kanpaina babesteaz gain, beronen jarraipena egingo du EGK-k. Kanpainaren ostean gazte gehiagorengana heltzeko galdetegi bat zabalduko du. Bertan Bilboko aisi eredu jasagarri eta garbiago bat lortzeko gazteen ekarpenak eta proposamenak bilduko dira. Ostean galdetegiko emaitzak udalari helaraziko zaizkio, etorkizun batean kanpaina edo ekinbideak egiterakoan gazteen proposamenak presente egon daitezen.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Bilbon aisi eredu jasagarri eta garbiago bat lortzeko, bertako gazteen proposamen eta ekarpenak biltzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bilboko gazteen aisi ereduan sakontzea.

Kanpainaren jarraipena egin eta galdetegiaren nondik norakoak zehaztu.


Galdetegia publiko egin eta gazteen artean zabaldu.

Galdetegiko emaitzak eta ekarpenak bildu eta Bilboko Udalari igorri.

[illegible]

Bilboko Udalak proposatutako irizpideen arabera balorazioa egingo da. Bestetik gazteenganako irismen maila eta beraien ekarpen kopurua aztertuko dira.

3.9. MATERIAL ETA GELEN LAGAPENA



Material eta gelen mailegua EGK-k gazteei eta gazteen elkarteei eskaintzen dien zerbitzuetako bat da.

Eskaerak jasotakoan, ezarritako prozedura estandarizatua jarraitzen da materiala zein gela lagatzeko. Parte-hartze teknikariaren lana da maileguen jarraipena egitea eta material eta gelen erabilera sustatzea, eta berori baliatu behar da EGK eta zerbitzuaren erabiltzaileen arteko harremana indartu eta sakontzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Gazteei eta gazteen elkarteei beraien ekimenetarako hainbat material eta espazioak eskaintzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK eta zerbitzuaren erabiltzaileen arteko harremana indartu eta sakontzea.
- EGKren material eta bulegoen erabilera gazte-elkarteen artean geroz eta gehiago sustatzea.

Garapena

EKINTZAK:

■ Lagapen eskariak kudeatu daudenean.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

Utzitako material eta baliabideen egoeraren gaineko jarraipena egitea. Bestetik, urtean zehar egindako lagapen kopurua aurreko urteetakoekin alderatzea.

3.10. AHOLKULARITZA



Parte-hartze teknikariaren eguneroko lanetarik bat da gazteek zein elkarteek aurkeztutako kexak, proposamenak eta zalantzak entzun eta irtenbideak proposatzea.

Aldi berean, garrantzitsua da, ahal den heinean, sare ezberdinetan parte-hartzea; horietan aurkeztutako ideiak jasotzeko zein EGKren ideiak helarazteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Gazteek zein elkarteek aurkeztutako kexak, proposamenak eta zalantzak entzun eta irtenbideak proposatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Sare ezberdinetan parte-hartzea; horietan aurkeztutako ideiak jasotzeko zein EGKren ideiak helarazteko.

Garapena

EKINTZAK:

Aholkularitza-lana.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

Ebaluazio irizpide nagusiak egindako aholkularitza zerbitzuen kopurua eta berauen edukia izango dira. EGKren parte ez diren elkarte eta eragileekin egindako kontaktua, eta, harreman horien bilakaera ere baloratuko da.

3.11. EGUNEROKO LANA

EGK-ko lan-arlo guztiek ezinbestekoak dituzte barneko nahiz kanpo koordinaziorako bilerak. Baita urtean zehar ager daitezkeen bestelako proiektuetan parte-hartzeko aukera ere. Gainera, lan-arlo honen kasuan, bere zeharkakotasuna dela-eta, EGK-ko gainontzeko lan-arloekin izan beharreko koordinazioa ia etengabea da, baita kanpoko elkarte, eragile eta administrazioekin ere.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGK-ko beste lan-arloekin barne koordinazioa eta kanpo eragileekin harreman berriak eraikitzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Egoitzetako kudeaketa lanak egin.
- Beste-lan arloei gazteen parte-hartzearekin lagundu.
- Urteko plangintza eta memoria egin.
- Hedabideetan agertu hala eskatzen dutenean.
- EGKren barne antolakuntzarako bileratan parte hartu.

Garapena

EKINTZAK:

- Urteko plangintza prestatu.
- Bilerak.
- Memoria egin.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

Urte osoko plangintzaren jarraipena eta barne komunikazioa ebaluatuko da.

4. BAKEA ETA BIZIKIDETZA



2018-2020 urteetan EGK-k Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin sinatutako lankidetzaz hitzarmenarekin jarraituko du. Lankidetzaz honen helburua nagusia gazteek bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko kulturaren parte hartzeko eta kultura hori zabaltzeko estrategia garatzea da. Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planak hiru ardatz jorratu nahi ditu: iraganari dagokionez, indarkeriaren amaiera ordenatuarekin lotutako gaiak; orainari dagokionez, bizikidetzaren normalizazioari lotutakoak; etorkizunari dagokionez, giza eskubideen agenda berriari lotutako gaiak: migrazioak, errefuxiatuen egoera, gerren ondorio humanitarioak, berdintasun ezaren edo diskriminazioaren forma berriak, esaterako.

Guzti hau gazteekin sakon lantzeko, hainbat proiektu eta ekintza jarriko dira abian. Garrantzitsuenetakoa, etikasi programa izango da, hiru urteetan zehar garatuko den proiektu hezitzaile bat, hain zuzen. Baina hortaz gain, bizikidetza eta giza eskubideen gaiak hainbat ikuspuntutatik aztertzeko topaketa eta jardunaldiak diseinatuko ditu EGK-k. Jarraian datorren plangintzan zehazten dira.

4.1. ETIKASI PROGRAMA

Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin batera koordinatuta garatuko da proiektu hau. Proiektu honen helburua giza eskubideei buruz eta etikari buruz

ikastea da. Horretarako, bidaia hezigarriak antolatuko dira Europan indarkeria luze jasan duten lekuak bisitatzeko. Bisitak Batxilergoko, Lanbide heziketako Erdi edo Goi Mailako Heziketa Zikloko edo Unibertsitateko lehen mailako ikasleen taldeei eskainiko zaizkie. Bisitan parte hartzeko aldeaz aurretiko lan bat egin beharko da gida didaktikoak lagunduta. Bisita ostean, beste lanketa bat egingo da Euskadin gertatutakoaren eta Europako leku horretan gertatutakoaren gaineko gogoeta kritiko bat egiteko eta ondorioak ateratzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Eusko Jaurlaritzako Bizikidetzaz, Giza Eskubide eta Lankidetzaz Idazkaritzaz Nagusiarekin batera, etikazko programari lotutako esperientzia pilotua prestatzea, 2019an abian jarriko den esperientziaren oinarri izan dadin.

HELBURU ZEHATZAK:

- Proiektuaren hiru faseak prestatzea: diseinu pedagogikoa, antolakuntza eta ebaluazioa.
- Proiektuaren diseinua aurrera eramateko beharrezkoak diren materialak prestatu eta kontaktuak egin.

EKINTZAK:

- Esperientzia pilotuaren diseinu pedagogikoa prestatu.
- SOS Arrazakeriak Auschwitzera antolatutako bidaiara gehitu.
- Esperientzia pilotuaren antolaketa prestatu.
- Parte hartuko duten gazteak aukeratzeko hautaketa-prozesua diseinatu.
- Esperientzia pilotuaren ebaluazioa diseinatu.
- Giza Eskubide, Bizikidetzaz eta Lankidetzaz Idazkaritzaz Nagusiarekin koordinazio bilerak.

2017an EGK-k, Nafarroako Gazte Kontseilua, Kataluniako eta Espainiako Gazte kontseiluekin batera, Arabako SEADen Lagunen Elkartek Saharako errefuxiatuen kanpamentuetan gazteentzako formakuntza bat emateko koordinatu zuen proiektu baten parte hartu zuen. Bertan jasotako ekarpenak eta proiektuaren ondorioak gizarteari helarazteko asmoz, bideo bat egin da. Bideo honen aurkezpena martxoan burutuko da eta dinamika parte-hartzaile batekin emango zaio itxiera.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGK-k 2017an Saharako errefuxiatuen kanpamentutan burututako proiektuaren ondorioak hedabideei eta gizarteko eragileei helaraztea.
- EGK giza eskubide eta bizikidetzan lan egiten duen erakundearen irudia sendotzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bideoa aurkezteko ekitaldi bat burutzea.

Garapena

EKINTZAK:

Bideoa aurkezteko ekitaldia antolatu.

Bideoaren aurkezpena.


KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Ekintzaren egutegia eta edukia betetzea.
- Dinamika parte-hartzailean jasotzen diren ekarpenek bakegintza eta bizikidetza politiketan eragina izatea.
- Gazte gehiago EGK-k burutzen dituen bakea eta bizikidetza proiektuetan gehitzea.

4.3. GAZTEON AUKERA DOKUMENTALAREN DIFUSIOA



2014-2016 urtetan bake-hitzarmenaren baitan burututako proiektuetan gazteek egindako ekarpenak instituzioei, komunikabideei eta gizarteari helarazteko helburuarekin *Gazteon aukera* dokumentala prestatu zen. 2017ko martxoan aurkezpen bat egin zen arren, aurten material honen zabalpena egiteko beste hainbat bide aztertuko dira: zinemaldiak, telebista, aurkezpenak.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- *Gazteon aukera* dokumentala gizarteari zabaltzea, EGK-k 2014-2016 urtetan zehar bake-hitzarmenaren baitan burututako proiektuak helarazteko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Ikus-entzunezko gazte-memoria bat sortu.
- EGK bakegintzan lan egiten duen erakundearen irudia sendotzea, eta gizarte eta administrazio mailan zilegizko eragilea bezala aitortuta izatea.

Garapena

EKINTZAK:

Dokumentalaren difusioa hedabideetan eta hainbat espazio publikotan aurkeztea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Dokumentalaren difusioa ahalik eta handiena izatea.
- Dokumentalean jasotzen diren ekarpenak bakegintza- eta bizikidetza-politiketan eragina izatea.

- Gazte gehiago EGK-k burutzen dituen bake- eta bizikidetza-proiektuetan parte-hartzea.

4.4. EMAKUMEAK BIZIKIDETZAN TOPAKETA

EGK-k EAEko gazteriak bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko kulturaren parte hartzeko eta kultura hori zabaltzeko estrategia garatzea du helburu. Kasu honetan emakumeek bizikidetza errealitate bilakatzeko dituzten erronka nagusiak identifikatzeko eta proposamen desberdinak dituzten gazteen arteko elkartrukea sortzeko topaketa bat burutuko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Kultura eta erlijio anitza duten emakume gazteek bizikidetzan eta espazio publikoan parte hartzeko dituzten zailtasunak, erronkak eta proposamenak identifikatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bizikidetza arloan emakume gazteen ahotsari oihartzuna eman topaketa baten bitartez.
- Behar eta proposamen desberdinak dituzten gazteen arteko harremana eta sarea sortu.

Garapena

EKINTZAK:

-  EGK-ko teknikarien artean topaketaren diseinurako koordinazio bilerak burutu.
-  EAEko elkarte eta gazteei lehen deialdia zabaldu.
-  EAEko elkarte eta gazteei bigarren deialdia zabaldu.
-  Topaketa burutu.
-  Ekitaldiaren ebaluazioa eta ondorioak.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
											
											
											
											
											

Ebaluazioa

- Ekintzaren egutegia eta edukia betetzea.
- Parte hartzen duten gazteen profila anitza izatea.
- Gazte gehiago EGK-k burutzen dituen bakea eta bizikidetza proiektuetan gehitzea.

4.5. BAKE LANTALDEA



2015ean sortutako lantaldeari jarraipena emateko, 2018an talde honetara gehitzeko deialdia zabalduko da. 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren arabera, egungo euskal gizartean azaleratuz doazen erronka berriak landuko dira lantaldean. Alegia, migrazioak, errefuxiatuen egoera, gerren ondorio humanitarioak eta berdintasun ezaren edo diskriminazioaren forma berriak.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- 2015ean sortu zen lantaldeari jarraipena ematea eta gazte gehiago gerturatzea.
- Gazteok Giza Eskubide eta Bizikidetzaren esperientziak partekatzeko gune erosoak sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteek Giza Eskubide eta Bizikidetzaren gainean dituzten proposamenak eztabaidatu eta identifikatzea.
- Gazteek bakegintza prozesuan protagonistak direla eta zer esan badutela sinetsaraztea.

Garapena

EKINTZAK:

	Bake lantaldera gehitzeko deialdia.
	Saioen prestaketa eta garapena.
	Ebaluazioa.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Lantaldeari gazte berriak gehitzea.
- Urtean zehar bi hilero saio bat mantentzea.
- Lantaldean parte hartzen duten gazteen profila anitza izatea.
- Lantaldean parte hartzen duten gazteak gustura etortzea.
- Lantaldearen proposamenen kalitatea.
- Lantaldearen proposamenen oihartzuna.

4.6. EGUNEROKOA

Teknikari bakoitzaren lan-arlotik kanpo, EGKren funtzionamendu egokia bermatzeko egin behar diren lanak kontuan izan behar dira, lan-arloko egunerokotasunean eragina baitute. Besteak beste: bilerak, aholkularitza, egoitzako kudeaketa lanak, urteko proiektuen justifikazioa, 2018ko memoriak eta 2019ko plangintza.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGK-ko izaera eta funtzionamendua bermatzen duten eguneroko lanak burutu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bilerak, aholkularitza, egoitzako kudeaketa lanak, urteko proiektuen justifikazioa, bake protokoloaren aktibazioa, 2018ko memoriak eta 2019ko plangintza burutu.

Garapena

EKINTZAK:

Egunerokoaren menpe dauden funtzioak: egoitzako kudeaketa lanak.

Talde, batzorde eta eragile ezberdinekin bilerak.

Urteko proiektuen justifikazioa.

2018ko memoriak eta 2019ko plangintza prestatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bake eta Bizikidetzaren lan-arloari egiten zaizkion eskaerei erantzun egokia eman.
- Lana hobetzeko egiten diren ekarpenak jasotzeko eta lanean antzeman.
- Eguneroko lanak era egokian kudeatu.
- EGK-ko beste lan-arloetako proposamenei baliagarriak diren balorazioak eman eta ekintzetan parte hartu.

5. BERDINTASUNA



2018an Berdintasun lan-arloak bi ildo nagusi izango ditu: alde batetik, iraunkorrak diren proiektuak mantentzea eta hobetzea; eta, bestetik, 2017an hastapen bezala landutako gaietatik proiektu berriak sortzea. Era honetan, Berdintasuna eta Aniztasunari dagokion oso gai desberdinak ukitu ahal izango dira: hezkidetza, emakumeak espazio publikoan duen presentzia, LGTBI+ kolektiboaren egoeraren hobekuntzak, Indarkeria Matxista eta LGTBI+fobikoaren aurrean dauden baliabide berriak...

Guzti hau 2017an onartutako Berdintasun Planaren markoaren barruan garatuko da, aurreko urtearen lanari jarraiki eta 2019rako erronken identifikazioan lagunduz.

5.1. GAUR8



2016an Berdintasun lan-arloan Gaur8 izeneko lantaldea eratu zen. Ordutik, talde hau osatzen duten elkarten parte-hartzerako baliabideak gehitu egin dira. Horrela, banan-banakako eta

posta elektroniko bidezko harremanari garrantzia eman nahi izan zaio, gai konkretuen aurrean guztiek duten diskurtso bat landu eta garatzeko.

2018an, aurreko urtean bezalaxe, aurrez-aurreko bilera gehiago burutzea eta parte-hartzea sustatu eta mantentzea izango dira erronkak. Izan ere, EGK-k 2018an izango dituen hainbat parte-hartze espazioetarako ezinbestekoa izango da talde honen lanketa Berdintasun lan-arloaren diskurtsoa berritzeko eta sakontzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGKren Berdintasun-arloko diskurtsoa eratu eta eguneratu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Iraunkortasuna duten proiektuen diskurtsoaren eraketa.
- Berdintasun lan-arloko erronka berrien identifikazioa eta proposamenen burutzea.
- Lan-ildoen definizioan eta proposamenen eraikuntzan laguntzea.
- Berdintasun-arloan dauden gazte elkarten arteko harreman sarea sendotzea.

Garapena

EKINTZAK:

Bilerak burutu.

Gaur8ren diskurtsoa EGKren proiektuetan txertatu.

Urteko ebaluazioa eta 2019rako proiektuen proposamenak jasotzea.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Berdintasun Protokoloak erabiltzea intzidentzietarako.

HELBURU ZEHATZAK:

- Berdintasun Protokoloen eguneratzea.
- Berdintasun Protokoloen eragina mantentzea.
- EGKren Berdintasunarekiko konpromisoa berrestea Indarkeria Matxista eta LGTBI+obikoa salatuz.

Garapena

EKINTZAK:

Berdintasun Protokoloen birdiseinua.

Protokoloen egitura berriaren onarpena Batzorde Iraunkorraren eskutik.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Protokoloaren eraginkortasuna zein izan den.

- Protokoloa aktibatzerako orduan izandako aukera eta zailtasunak zeintzuk izan diren

5.3. EGK I. BERDINTASUN PLANA

Berdintasunarekiko konpromisoa era eraginkorrean hartu nahi duen gizarte eraginerako edozein testuinguruk beharrezkoa du konpromisoa hori neurri eta proiektu ezberdinetan txertatzea. Hau da, testuingurura zehatzetara egokitua dagoen eta bertan inpaktua izango duen Berdintasun Plan bat egituratzea.

2017an EGKren I. Berdintasunerako Plana onartu zen eta ordutik abian izan da. 2018an, plan horretan ezarriak dauden neurri eta proiektuak aurrera eramango dira, baita hauen ebaluazioa ere.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Berdintasuna zeharkako balore gisa errotu EGKren barne nahiz kanpo lanean.

HELBURU ZEHATZAK:


- EGK lan eremu gisa ulerturik beharrezkoak dituen neurriak aurrera eraman.
- EGK-k duen eragile paperaren barruan beharrezkoak diren neurri zein proiektuak aurrera eraman.
- 2017ari dagokion neurrien eta hauen inpaktuaren ebaluazioa burutu.

Garapena

EKINTZAK:

-  Planaren neurriak garatzea.
-  Planaren neurrien ebaluazioa.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
											
											

Ebaluazioa

- Epemugak betetzea.
- Neurrien inpaktuaren balorazioa.
- Neurrien eraginkortasunaren ebaluazioa.
- Urte bukaerako ebaluazio osoa.

5.4. GUNE ANITZA



Gune Anitza Berdintasuna eta Aniztasunarekiko aldeketasuna erakusten duen zigilua da, eta hau EGKren Berdintasun arloko proiektu iraunkorretako bat da.

2018an, alde batetik Gune Anitza zigilura atxiki daitezkeen espazio berrien azterketa eta horienganako hurbilpena egingo da. Gune honetara atxiki daitezkeen espazioak lurraldeko eremu ezberdinetan egon daitezke. Bestalde, jada atxikiak dauden eremuekin kontaktuan jarraitu eta horien ebaluazioak egingo dira behar besteko arreta eman ahal izateko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Berdintasun eta Aniztasunarekiko aldeketasuna erakustea eta hauekiko gazteek dituzten proposamenak txertatzea gune desberdinetan.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gune Anitz gehiago lortzea.
- Hobekuntza proposamenak eguneratuak mantentzea.
- Lortutako atxikimendu guztiak baloreari ezartzea.

Garapena

EKINTZAK:

Gune Anitza zigilua eska dezaketen guneen bilaketa aktiboa.

2017-2018an atxikitako guneen maparen aurkezpena.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Lortutako atxikitako espazio berriak.
- Aurreko urteko espazioei egindako jarraipena.

5.5. 'BERDINHEZI': HEZKIDETZA, EMAKUME GAZTEAK ETA LIDERGOA

Berdintasun lan-arloa berreskuratu zenetik hezkidetza bultzatzea izan da EGKren eskaeretako bat. 2018an, gizarte mailan nahiz administrazioen aldetik hezkidetzarekiko izan beharreko konpromisoaz gogoetan haratago joan nahi da. Honetarako 'BerdinHezi' proiektua garatuko da urte osoan zehar.

Proiektu honekin euskal gazteriak hezkidetzari buruz dituen iritzi eta ezagutzak landu nahi dira. Alde batetik, orain arte hezteko erabilitako baloreak berdintasunean oinarriturikoak izan diren jakiteko, eta bestetik, etorkizuneko hezkuntza feminista lortzeko bidean eman behar diren urratsak zeintzuk izan daitezkeen eztabaidatzeko. Horrela, eztabaida horietatik ondorioak atera eta txosten baten bidez euskal gazteriaren iritzi eta proposamenak instituzio ezberdinetara eraman ahal izateko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Hezkidetzari buruz gazteek dituzten proposamen eta eskakizunak ikusaraztea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Hezkidetzari ziurtatzeko proposamenak jasotzea.
- Orain arte martxan egon diren proiektu eta programak balioestea.
- Hezkidetzari ereduari buruz gogoeta egitea.

Garapena

EKINTZAK:

- Hezkidetzari buruzko galdeketaren diseinua eta garapena.
- Hezkidetzaren inguruko tailerraren diseinua eta garapena.
- Gazteek hezkidetzari buruz duten proposamen eta eskakizunen bilketa.
- Eskaerak gizarteratzeko jardunaldia.

Jarduera hauetan, hainbat pertsonaia espazio publikoan emakumea izatea zer den aztertu nahi da. Izan dituzten esperientzia, beldur eta oztopoak konpartitzeko espazioa sortu nahi da. 'Nor' izatea eremu publikoan lekua izatearekin estuki lotuta baitago.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Emakumeek esfera publikoan duten parte-hartzeari buruz hausnartu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Pertsonaia publikoak diren emakumeen eta gazteen arteko elkarriketa sustatu.
- Espazio publikoan diharduten emakumeek egunerokotasunari aurre egiteko dituzten arazoei erreparatu eta azken hauen inguruan hausnartu.
- Gazteei beraien ekarpen, kritika eta proposamenak egiteko aukera eman.

Garapena

EKINTZAK:

- #Plazandre formatuaren diseinua egin.
- #Plazandre antolatu.
- Ekitaldia aurrera eraman
- Gazteen proposamenak landu eta txostena prestatu.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Kultura eta erlijio anitza duten emakume gazteek bizikidetzan eta espazio publikoan parte hartzeko dituzten zailtasunak, erronkak eta proposamenak identifikatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bizikidetza arloan emakume gazteen ahotsari oihartzuna eman topaketa baten bitartez.
- Behar eta proposamen desberdinak dituzten gazteen arteko harremana eta sarea sortu.

Garapena

EKINTZAK:

EGK-ko teknikarien artean topaketaren diseinurako koordinazio bilerak burutu.

EAEko elkarte eta gazteei lehen deialdia zabaldu.

EAEko elkarte eta gazteei bigarren deialdia zabaldu.

Topaketa burutu.

Ekitaldiaren ebaluazioa eta ondorioak.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGK-ko beste lan-arloekin barne koordinazioa eta kanpo eragileekin harreman berriak eraiki ahal izatea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Egoitzetako kudeaketa lanak egin.
- Beste lan-arloetako Berdintasun ikuspegiko ekarpenak egin.
- Memoriak, hurrengo urterako Plangintza eta Berdintasun Planaren ebaluazioak egin.
- Hedabideetan agertu, hala eskatzen dutenean.
- EGKren barne antolakuntzarako bileratan parte hartu.

Garapena

EKINTZAK:

Bilera mota desberdinak

Memoriak, hurrengo urterako Plangintza eta Berdintasun Planaren ebaluazioak egin.


KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bilera kopurua.
- Ezarritako Planeko neurrien eraginkortasuna.
- Aurreikusita ez zeuden proiektu berrien kopurua.

6. KOMUNIKAZIOA



2018an Komunikazio lan-arloaren helburu nagusia Euskadiko Gazteriaren Kontseilua ezagutaraztea izango da. Bai lan-arloaren proiektu propioekin bai gainerako lan-arloen proiektuen bidez.

Prozesu horretarako 2016an hasitako estrategia berriari jarraipena emango zaio: askotan EGKri atxiki izan zaion kutsu instituzionala alde batera utzi eta gazte eta gazte-elkarteengandik gertuago kokatu, gazteena den hizkuntza erabiliz eta gazteentzako interesekoak diren proiektuak landuz.

6.1. TWITTER LEHIAKETA



Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak une puntualetan sare sozialak erabiltzen ditu gazteen iritzia biltzeko. Asmo horrekin jaio zen Twitter lehiaketa. 2018an hainbat berritasun izango dira: batetik, data aldaketa; eta, bestetik, iraupena.

EGKren diskurtsoa osatzeko eta gazteen iritzia biltzeko, denbora gehiagoz mantenduko da galdera. Unean pil-pilean dabilen gai bat baliatuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGKren diskurtsoa osatu
- Gazteen iritzia lehen eskutik ezagutu

HELBURU ZEHATZAK:

- Euskadiko gazteengana gerturatu.
- EGK ezagutarazi
- EGKren marka sendotu

Garapena

EKINTZAK:

Galdera eta planteamendua zehaztu..

Oinarriak, galdera eta sariak jakinarazi..

Lehiaketa.

Zozketa egin eta sarituak jakinarazi.

Bildutako iritzi eta proposamenak lantaldeari eta Batzorde Iraunkorrari jakinarazi 2018ko Plangintzan txertatzeko..

Barne-ebaluazioa

[illegible]

Ebaluazioa

- Jasotako txio kopurua
- Egindako ekarpenen kalitatea.
- Ekarpenen harira sortutako ideia edo egitasmo berriak.

6.2. GAZTEON GAUR EGUNGO IRUDIA



Krisi ekonomikoak eztanda egin zuenetik gazteen hainbat irudi saldu eta gizarteratu dira, batzuetan kontraesankorrak: inoiz egon den belaunaldi prestatuena da egungo gazteria baina askotan *nini* deitu izan zaie; gero eta gizarte indibidualagoa da baina erantzunak gero eta jendetsuagoak dira (Indarkeria Matxista salatzeak elkarteratzeak adibide).

Egoera horren aurrean, zer du esateko Euskadiko gazteriak? Zein da haien iritzia? Topaketa honen asmoa galdera horiek eta beste asko erantzutea da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Gazteen irudiari buruzko gazteen iritzia jakin.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-ko elkarteekin harremana sendotu.
- Gazteen eskari, proposamen eta ideiak batu.

Garapena

EKINTZAK:

- Ekitaldiaren diseinua.
- Ekitaldiko lehen deialdiaren zabalpena.
- Ekitaldiko bigarren deialdiaren zabalpena.
- Topaketa burutu.
- Ondorioak erredaktatu.
- Ondorioak EGK-ko elkartei bidali eta gizarteratu.

2017an sare sozialetan hasitako estrategia berriari jarraipena emateko, 2018an ikus-entzunezko edukien bultzada bat eman nahi zaie. 30 urte baino gehiagoz EGK-k hainbat proiektu eraman ditu aurrera eta bide horretan diskurtso asko garatu ditu. Bideratzen garen hartzaileen ohiturak aldatu diren bezala, EGK-k haiekin harremantzeko duen modua ere moldatu behar da.

Bide horretan, diskurtsoak ezagutarazi eta helarazteko, ikus-entzunezko formatuari garrantzi gehiago emango zaio 2018an zehar.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGK-k bere hartzaileekin harremantzeko duen modua eguneratu
- EGK-k eta bere lan-arloek sortutako diskurtsoa gizarteratu.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren proiektuak ezagutarazi eta parte-hartzea handitu.
- Orain arte sortu diren diskurtsoak beste modu batera helarazi
- EGKren marka sendotu.

Garapena

EKINTZAK:

EGK-k orain arte egindakoa, diskurtsoak, proiektuak, etab. ezagutarazteko egingo diren bideoen zerrenda osatu eta garrantziaren arabera ordenatu

Bideoak egiten joan

2018an egindakoaren ebaluazioa, behar berriak identifikatu, zerrenda berriro ere garrantziaren arabera antolatu

eta bestelakoen zerrenda egingo da. Ondoren, haiekin zein harreman mota izan daitekeen bilatuko da: ekitaldietara gonbidatu, sinergiak bilatu, elkarlana sustatu, etab.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGKren lan-arlo bakoitzeko harreman-sarea sortu

HELBURU ZEHATZAK:

- Lan-arlo bakoitzak egiten dituen lantalde, bilera edo ekimenetan parte-hartzaile kopurua igo.
- Elkarlanean eragile gehiagorekin aritu.
- EGK ezagutarazi
- EGKren marka sendotu

Garapena

EKINTZAK:

EGK-ko lan-arloekin modu batera edo bestera elkarlanean aritu daitezkeen elkarteen zerrenda osatu.

Egindako zerrenda EGK-ko lan-arloek antolatutako ekimenetarako erabili

Urtearen ebaluazio 2018ko plangintzaren onespena egin.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGKren webgune orok ondo funtzionatzea

Garapena

EKINTZAK:

Kanpo enprekin harremana izan webguneen mantenua kudeatzeko hala beharko balitz.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Webgune orok urtean zehar zein arazo izan dituen eta hautatutako enpresek emandako erantzuna hauen aurrean

6.6. WWW.EGK.EUS WEBGUNEAKUDEATU



Hasiera	Nor gara	Lan-arloak	Prentsa aretoa	Argitalpenak	Albisteak	Agenda	Non Gauden
---------	----------	------------	----------------	--------------	-----------	--------	------------



EGKren webgunea, www.egk.eus, elkarte plataformaren tresna eraginkorrena da lantalde teknikoak egiten duen lana islatzeko: lan-arlo bakoitzaren azken albisteak, lan deialdiak, antolatutako ekintza eta proiektuen berri eman, lantaldeen bilerak jakinarazi eta sortzen diren produktuak (bideoak, txostenak, etab.) publikatu, EGK-ko elkartearen informazioa eskaini, gazteei bideratutako ekimenak agendan txertatu, etab.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGK-k egiten duen lanaren berri eman
- EGK osatzen duten elkartearen berri eman
- EAEko gazteentzat interesgarriak diren ekitaldien berri eman (albisteetan nahiz agendan)

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren azken albisteen berri ematea.
- EGKren argitalpenak (berriak eta azken urteetan egindakoak) Interneten eskuragarri jartzea.

- EGK-ko elkarteen eta EGK-koak ez diren elkarteen jardueren berri ematea, webguneko agendan.
- EAEko gazteentzat interesgarriak diren ekitaldi, proiektu edo egitasmoen berri ematea webguneko agendan
- Elkarteen zerrenda gaurkotu bat mantentzea.

Garapena

Webgunearen kudeaketa urte osoan zehar garatzen den lana da, hau da, albisteen atala EGKren eguneroko lanarekin hornitzea eta agendan EAEko gazteak protagonista dituen edo haientzat interesekoak diren ekitaldi, egitasmo edo proiektuak jasotzea egunero egin beharreko lanak dira. Horretaz gain, webguneak behar duen bezala erantzun dezan, komunikazio-teknikariak optimizatu egingo du (albiste guztiek irudi optimizatuak izatea, irisgarritasuna bermatzea erabiltzaile orori, SEO aholkuak jarraitu, etab.) Googlen kokapena hobetze aldera.

Bestetik, webgunean finkoagoak diren atalak (banerrak, elkarteen datuak, irudiak, etab.) bestelako maiztasun batekin berrituko dira. Honela erabiltzaileek jarraipen bat nabarituko dute (garrantzitsua webgunea berria dela ikusita), baina aldi berean kanpaina berezien berri izango dute. Honekin batera, txostenak ateratzen diren heinean webgunean eskegiko dira edonork ikus eta irakur ahal ditzan.

EKINTZAK:



Webgunea kudeatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- www.egk.eus webgunean jasotzen duen erabiltzaile kopurua. Jarraipena zehatzagoa egiteko maiztasunarekin begiratu da, 2019ari begira estrategia birdefinitzeko. Bestek beste, aurreko urteetako erabiltzaile kopuruarekin alderatuta.
- Lantalde tekniko eta Batzorde Iraunkorraren iritzia.

6.7. DISEINATZAILE GAZTEEN LAN-POLTSA



Diseinatzaile gazteen lan-poltsa
Bolsa de trabajo de personas
jóvenes diseñadoras

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) 2018an izango dituen behar berezi batzuk aurreikusita, erakundeek plataforma diseinatzaile gazteen lan-poltsa mantenduko du. 2016 eta 2017an egindako deialdietan osatu zen zerrenda eta 2017ko ebaluazioaren ostean, bertako diseinatzaileak mantentzea erabaki da egunerokoan sortzen diren behar guztiei erantzuteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGK-k 2018an zehar izango dituen diseinu lanak egiteko diseinatzaile gazteen lan-poltsa osatzea.
- Diseinatzaile gazteei aukerak ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-k bere eguneroko lana zabaltzeko beharrezkoak diren euskarrien diseinua, maketazioa, etab. Euskarri hauek kartelak, esku-orriak, liburuxkak, txostenak.. izango dira.
- EGKren hainbat kontzeptu zabaltzeko irudi espezifikoak..

Garapena

Urte osoan lantalde teknikoak dituen beharrak asetzeko diseinatzaile gazteen lan-poltsarekin lan egingo da.

Ebaluazioa

- Teknikari bakoitzak diseinatzaile batekin lan egin ostean ebaluazioa egingo du. Urte amaieran, diseinatzaile bakoitzaren ebaluazio orokorra egingo da (baliteke behin baino gehiagotan lan egitea diseinatzaile berdinarekin) eta orduan erabakiko da 2019ko lan-poltsan nork jarraituko duen eta nork ez.
- Aurkeztutako produktuek zer nolako erantzuna izan duten: administrazioen balorazioa, Batzorde Iraunkorraren iritzia, lantalde teknikoaren ebaluazioa, gazteengandik jasotako erantzuna, etab..
- Ezarri diren beharrak aztertu nahikoak izan diren ala ez ikusteko. Ezetz izanez gero, deialdi berriari begira behar horiek gehitu.

6.8. PIZTU! BULETIN DIGITALA



Piztu! bulletin digitala bi edo hiru astean behin bidaltzen zaie harpidetu diren gazte, gazte-elkarte, norbanako eta administrazioei. Gazteek gazteentzat egindakoa da, eta bertan, besteak beste, honako edukiak biltzen dira:

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) azken albisteak.
- EGK-ko kide diren elkarten jarduerak.
- Bestelako gazte eragileen jarduerak.
- Euskadiko gazteentzat interesgarriak diren ekitaldiak.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK), gazte elkarten eta bestelako gizarte eragileen lana eta deialdiak ikusaraztea eta balioan jartzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Komunikazio baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileei komunikazio euskarri bat eskaintzea.

- Gazte elkarteek eta gizarte eragileek beste elkarte eta eragile batzuk egiten dutenaren berri jasotzea.
- Gazte elkarten eta gizarte eragileen lanaren eta deialdien aniztasuna ikusarazi eta balioan jartzea.
- Euskara sustatzea (%60 gutxienez euskaraz).
- Gazteriak dituen proposamenak eta eskaerak aditzera ematea.
- Gazteek dituzten proposamenak ere espazioen kudeaketarako gomendioetan txertatzea eta gazteen diskurtsoa balorean ezartzea.

Garapena

Piztu! Buletin digitala bi edo hiru astean behin bidaltzen da, EGK-k egunerokoan sortzen dituen albisteen arabera da maiztasuna.

EKINTZAK:

 Piztu! butein digitala kudeatu

KRONOGRAMA:


URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

Komunikazio arloak Piztu buteinaren ebaluazioa egingo du urte-amaieran, aldeztu aurretik finkatutako irizpideak jarraituz:

- Maiztasuna: Bi astean behin bidaltzearena bete den ala ez
- Harpidedun kopurua/mota: urte hasieratik zegoen kopurua igo, mantendu ala jaitsi den. Era berean, harpidedun mota edo profila ahalik eta pluralena izatea da helburua.
- Albisteen aniztasun maila.
- Buletinean agertutako eragileen aniztasun maila.
- Jasotako iradokizunak. Lortutako eragile eta administrazio sarearen inplikazioa eta eragileen kopurua.
- Mezuen eraikuntzan izan den gazteriaren partaidetza.
- Lortutako inpaktu maila: getResponde bidez, bidalitako Piztu bakoitzaren estatistikak lor daitezke.

6.9. SARE SOZIALAK KUDEATU



Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) hainbat sare sozial erabiltzen ditu hainbat helbururekin. Batetik, lanerako garrantzitsua izan daitekeen informazioa jasotzeko; bestetik, eguneroko lana ezagutarazteko eta, azkenik, gazteei, elkarteei eta bestelako eragileei zerbitzua emateko.

EGK-k dituen sare sozialak honakoak dira: Twitter, Facebook, Instagram, LinkedIn, Google+ eta YouTube dira. Lehen hiruetan edukia ia egunero eskegitzen da (Twitter eta Instagramen egunean behin baino gehiagotan). LinkedIn eta Google+ EGKren albisteak (webgunekoak batez ere) posizionatzeko erabiltzen dira. Eta, azkenik, Youtube. Ziurrenik EGKren sare sozial ahulena, ekitaldi potente bat dagoenean soilik igotzen da edukia.

2018an ikus-entzunezko edukiari garrantzia handiagoa eman nahi zaio. 2017an abiatutako estrategia berriari jarraipena eman eta pausu bat haratago joateko. Zehatzago azaldu dira 7.3 eta 7.4 ataletan.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGKrentzat garrantzitsua izan daitekeen informazioa biltzea.
- Gazteei eta gazte-elkarteei zerbitzu bat eskaintzea.
- EGKren marka kudeatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazte elkarten azken albisteak ezagutu, baita gazteria arloko bestelako eragileen azken orduaren berri izatea ere.
- EGKren azken albisteen berri ematea.
- Gazte eragileen albisteen eta agenda-deialdien berri ematea.
- Gazteei buruz edo gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen azken orduko albisteak ematea.

Garapena

Sare sozialen kudeaketa urte osoan zehar egiten da. Ia egunero hainbat bilaketa egiten dira EGK-k dituen sareetan eta baita Googlen ere. Zer esan den EGKri buruz, zer nolako oihartzuna izan duten aurkeztutako proiektuek eta hauen ondorioz izandako agerraldiek, EGK-k indarrean dituen protokoloak direla-eta gertakariren bat egon den, etab.






Horretaz gain, EGKrekin zerikusi zuzena edo EGK-ko lan-arloekin lotura duen informazioa eskaintzen da, erabiltzaileekin interakzio handiagoa bilatzeko eta EGKren marka indartzeko.

Azkenik, tarteka-marteka, ebaluazioa egiten da: interakzioa, irismena, jarraitzaile kopurua, elkarreragina, etab. Horretarako sare sozial bakoitzak eskaintzen dituen erremintak erabiltzen dira, ebaluazio atalean zehazten den bezala.

EKINTZAK:

 Sare sozialak kudeatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
											

Ebaluazioa

Sare sozialen kudeaketaren ebaluazioa egiteko, hainbat tresna erabiltzen ditu komunikazio teknikariak:

Facebook orrialdearekin sare sozialak berak ematen dituen baliabideak erabiltzen dira. Hauei esker dakigu argitalpen bakoitza zenbat pertsonen atsegin duten, zenbatek elkarbanatu eta zer nolako irismena izan duen, hau da, zenbat inpaktu izan dituen. Horretaz gain, hileroko estatistika orokorrak ateratzen dira. Era honetan estrategia eralda daiteke, eta, kanpaina zehatzak eginez gero datu konkrituak lor daitezke.

Twitter profilararekin sare sozialak eskaintzen duen Twitter Analytics erabiltzen da, interakzioa, irismena eta bestelako datu esanguratsuak lortzeko.

Instagramen argitalpen bakoitzak duen irismena begiratzen da, ikustaldiez gain zer nolako interakzioa egon den aztertzeko.

Azkenik, proiektu garrantzi bakoitzean erabiltzen den traola aztertzen da.

2018rako helburua hauetan sakontzea da, erabiltzaileek EGK-ko sareekin duten harremanari buruz ahalik eta informazio gehien ateratzeko.

6.10. KOMUNIKABIDEEKIN HARREMANA



Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) ekintza zein EGK-k parte hartzen duen ekimenen hedapena egin. Honetan sartzen dira, besteak beste:

- Prentsaurrekoak/prentsa-oharrak egin.
- EGKren ekitaldiak hedabideen agendan argitaratzeko bidali.
- Hedabideek eskatutako elkarriketak kudeatu, baita EGKren proiektuen aurkezpen elkarriketak (EGK-k proposatutakoak).
- Kazetarien eskaerak/proposamenak kudeatu.
- EGK-k komunikabideetan dituen agerpenak zerrendatu.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Euskadiko gazteen interesekoak diren edo izan daitezkeen gaiak hedabideen eta, beraz, gizartearen agenda mediatiko eta sozialean txertatu.
- EGKren jarduera eta iritziak, bai eta EGK-k parte hartzen duen plataforma eta
- Ekimenen jarduera eta iritziak ere, hedabideen bitartez gizarteratu.

Garapena

- Aldian aldiko prentsaurrekoak egin, hauen ostean prentsa-oharra bidali hedabideei eta bertako albisteetan EGKren manifestu eta komunikatuak azaltzea.
- EGK-k dituen hainbat protokoloen aktibazioa eta hedapena: lan istripuen ondorioz zauritu edo hildako pertsona gazteak, Indarkeria Matxistaren eta Indarkeria LGTBI+fobikoaren aurkako protokoloa eta pertsona gazteen Giza Eskubideen urraketa harira aktibatze protokoloa.
- Deialdiak agendatan txertatu.
- Iritzi artikuluak idatzi eta txertatu.
- EGK aurkezten dituen txosten, proiektu eta egitasmoen harira elkarrizketak lotu.
- Kazetari eta hedabideen datu basea eguneratua mantendu.
- Indarkeria Matxistari buruz kontzientziatu, honen hainbat forma ezagutzera eman eta EGK-k Indarkeria Matxistaren aurka lan egiten duen entitate gisa duen konpromisoa berretsi.
- Gazteek bizi proiektua egiteko behar duten baldintza sozioekonomikoak bermatzeko eskaria gizarteratzea.
- Gaztedian arazo honek duen pisua eta seriotasuna gazte diskurtso batetik aztertzea
- Gazteek dituzten aurre egiteko proposamenak eta eskura dituzten baliabide desberdinak gizarteratu eta aditzera eman.

Ebaluazioa

- Hedabideetan izandako agerraldi kopurua, baita jasotako elkarrizketa eta erreportaje eskari kopurua.
- Lortutako kontaktu berriak.

6.11. BARNE KOMUNIKAZIOA



Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren komunikazio oro ez da kanpora begirakoa. Barne komunikazioa ere oso garrantzitsua da, eta hau, komunikazio teknikariaren ardura da. Batetik, lantalde teknikoak osatzen duten lan-arloen artekoa; bestetik, lantalde teknikoak eta Batzorde Iraunkorraren artean; eta, azkenik, EGK osatzen duten ia 60 erakundeekin. Hiru euskarri hauen funtzionamendu egokiak soilik bermatzen du EGKren funtzionamendu egokia eta eraginkortasuna.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko (EGK) barne-komunikazioa hobetu, bai lantalde teknikoak osatzen duten lan-arloen artean, bai lantaldearen eta Batzorde Iraunkorraren artean eta bai EGK eta EGK osatzen duten elkarten artekoa.

HELBURU ZEHATZAK:

- Lan-arloen artean sinergiak sortu.
- EGK osatzen duten erakundeekin harremana sendotu, haien presentziari garrantzia gehiago eman (webgune, sare sozial, Piztu! buletina).
- Batzorde Iraunkorra.

- Bileren denbora murriztu eguneroko komunikazioa arinagoa eginez eta hobetuz. Lehen Helburu zehatza.

Garapena

Urte osoan zehar egingo den prozesua izango da. EGK osatzen duten elkarteekin harremanetan jarriko gara EGK-k 2016an komunikazio lan-arloan egindako aldaketak jakinarazteko (webgune berria eta haien atala nola geratu den, Piztu!-n atal berria dutela, sare sozialetan haien ekintzak zabaltzeko aukera) eta ea zein behar dituzten galdetu. Asmoa, etengabeko hobekuntza bultzatzea da.

EKINTZAK:

 Barne komunikazioa kudeatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Lantalde teknikoaren barne komunikazioa nolakoa izan den (teknikari eta presidenteari iritzia galdetuta ebaluatuko da).
- Teknikari eta loturen arteko komunikazioa nolakoa izan den (teknikari eta Batzorde Iraunkorreko kideei galdetuta ebaluatuko da).
- Lantalde tekniko eta Batzorde Iraunkorraren arteko komunikazioa nolakoa izan den (lantalde tekniko eta Batzorde Iraunkorrari galdetuta ebaluatuko da).

6.12. BESTE LAN-ARLOEKIN KOORDINATZEN DIREN PROIEKTUAK



Enplegua eta Etxebizitza

- Emantzipa... Zer? lantaldearen deialdiak egin (urte osoan zehar).
- Lan istripuen protokoloa
- Etxebizitza sarbiderako modeloen azterketa
- Formakuntza duala Hiruburua
- Itzulera programen azterketa eta gazteen egoera ezagutzeko bideoaren zabalpena

Hezkuntza

- Astialdi Foroa eta Hezkuntza Foro lantaldeen deialdiak egin (urte osoan zehar)
- Astialdi Foroaren udako kanpaina (apirila) zabaldu: albistea eta prentsa-oharra
- Astialdi Foroaren ikastaroen kanpaina (uztaila eta iraila) zabaldu: albistea eta prentsa-oharra
- Boluntarioritza kanpaina

Parte-hartze

- Plazandre: emakume esfera publikoan jardunaldia (Berdintasun lan-arloarekin elkarlanean)
- EGK-ko elkarteekin harremana sendotu

Bake eta Bizikidetza

- Bake eta Bizikidetza lan-arloko lantaldearen deialdiak (urte osoan zehar).
- *Gazteon aukera* dokumentalaren zabalpena
- Saharako bidaia laburtuko duen bideoaren zabalpena
- Bizikidetza topaketen deialdi eta zabalpena.

Berdintasuna

- Gaur8 lantaldearen deialdiak (urte osoan zehar)
- Indarkeria Matxista eta Indarkeria LGTBI+ jebikoaren aurkako protokoloa aktibatu (urte osoan zehar).
- Plazandre: emakume esfera publikoan jardunaldia (Parte-hartze lan-arloarekin elkarlanean)
- Berdin-hezi proiektuaren zabalpena.

Presidentzia

- 2018ko Batzar Orokorraren komunikazioa (martxoak 10)
- Presidentziarekin lotura duten beste hainbat ekintzatan parte hartu: bilerak, topaketak, hitzaldiak, komunikabideekin harremanak, ekitaldi instituzionalak, beste elkarteekin harremanak... babesa eman eta lagundu (urte osoan zehar).
- Gazteria-legea.

Gai administratiboak

- EGKren egunerokotasunean sortzen diren lantxoak kudeatu (urte osoan zehar).

7. PRESIDENTZIA

7.1. BATZORDE IRAUNKORRA

Batzorde Iraunkorra EGKren erabaki-organoa da. EGK-ko eskubide osoko kide diren elkartetako 11 ordezkari osatzen dute. Horrela banatzen da: presidentea, 2 presidenteorde, diruzaina, idazkaria eta 6 batzordekide. Batzar Orokorra urtero ospatu arren, Batzorde Iraunkorraren eraketa 2 urtetik behin erabakitzen da. Bere ardura da EGKren gainerako erabakiak hartzea, lan-ildoak ezartzea eta EGKren irudi publikoa landu eta aurrera eramatea.

2015ean osatu zen egun Iraunkorra osatzen duen taldea eta kideek EGKren gainean daukaten ezagutzan sakondu beharko dute, batzarrean onartzen den plangintza aurrera ateratzeko ahalegina egin eta urtean zehar, dagokion erabaki berriak hartu. Horrez gain, 2018an batzorde iraunkorrean bi kide sartzeko aukera dute.

Bestalde, Presidenteak zubi lana egiten jarraituko du Batzorde Iraunkorraren eta Batzorde Teknikoaren artean. Batzorde Iraunkorraren bileretara teknikariak azalduko dira, txandaka. Hartara, EGKren lana modu zuzenagoan ezagutzera emango da Batzorde Iraunkorrean eta erabakiak hartzeko era erraztuko da.

Azkenik, Presidentziaz Batzorde Iraunkorra gai guztien berri emateko lana egingo du baita bileretatik at ere, telefonoz eta e-postaz nagusiki.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGKri dagokion gaien gainerako erabakiak bideratu.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren kide diren taldeekiko komunikazioa landu.
- Batzorde Iraunkorra osatu, gorpuztu, taldetasuna landu.
- Batzorde Iraunkorraren erabakigarritasuna sustatu.
- Ardura banaketa bermatu.

- Batzorde Iraunkorreko kideen parte hartzea sustatu.

Garapena

EKINTZAK:

Batzorde Iraunkorraren bilerak

Lantalde Teknikoarekin bilerak

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bileren maiztasuna.
- Bileren eraginkortasuna.
- Erabakien gauzatzea.
- Gizarte-oihartzuna.
- Elkarteen erantzuna.

7.2. LANTALDE TEKNIKOAREN KOORDINAKETA

Lantalde Teknikoa EGK-ko teknikariek osatzen dute, bakoitzak bere arloan lan egiten du egunero, eta denen artean proiektu guztiak kaleratzen dira; hau da, nahiz eta arlo bateko

proiektua izan, denen eskuetatik pasatzen dira egitasmo guztiak, EGKren diskurtsoarekin bat etor daitezzen eta koherentzia bermatu dadin.

Presidentziaren aldetik lantaldearen kohesioa eta koordinazioa bilatuko dira eta zubi-lana egingo da Batzorde Iraunkorraren eta Lantalde Teknikoaren artean, aurrenekoan hartutako erabakiak bigarengora eraman eta bigarrenaren lana aurrenekoari transmititu ahal izateko. Hala, bi batzordeen dinamikak uztartuko dira.

Lantalde Teknikoa hilabeteen behin elkartzen da txandaka hiru egoitzetan. Bilera hauen deialdia eta dinamizazioaren ardura presidentearenak dira. Horrez gain, gutxienez bi astetik behin, SKYPE bidezko bilera teknikoak egiten dira.

Aurten ere, teknikari baten erreleboa egongo da. Aukeraketa prozesua Presidentziazatik koordinatzen da Batzorde Iraunkorraren laguntzaz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Lantalde Teknikoaren kohesioa eta koordinazioa bermatu.
- Lantalde Teknikoaren beharrei erantzuna eman.
- Zubi-lana egin Lantalde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorraren artean.

Garapena

EKINTZAK:

- Lantalde Teknikoaren bilerak
- Batzorde Iraunkorrek bilerak
- Aukeraketa prozesua
- Egunerokotasuna

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bileren maiztasuna.
- Bileren eraginkortasuna.
- Erabakien gauzatzea.
- Teknikarien arteko koordinazioa.
- Lantalde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorraren arteko informazio trukaketa.
- Gatazka eza
- Kontratu berriak gauzatzea

7.3. BATZORDE EKONOMIKOA

Batzorde Ekonomikoak EGKren aurrekontua, gastuak eta diru-sarrerak kontrolatu eta kudeatzen ditu. Batzorde Ekonomikoa EGK-ko idazkariak (administrari-lana burutzen baitu), diruzainak eta presidenteak osatzen dute. Hitzarmenen bidez lortutako diru-laguntzak, elkarteen kuotak eta bestelako diru-sarrerak kudeatzen dituzte eta unean-unean gastuak eta egoera ekonomikoa zaintzen dituzte.

Batzorde honetan 2018ko aurrekontuaren kudeaketa egingo da, eta Batzorde Iraunkorreko kideekin adostuta, administrazioarekin hitzarmenak negoziatuko dira. Honez gain, beharrezkoak izango diren gastuak baloratu eta onartuko dira.

Gainera, hurrengo urteari begirako hitzarmenak prestatuko dira eta aurrekontuaren aurreikuspena egingo da.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK:

- EGKren alor ekonomikoaren jarraipena egin.
- Alor honetan unean uneko erabakiak hartu.

HELBURU ZEHATZAK:

- 2016eko aurrekontua prestatu.
- Administrazioarekin hitzarmenak negoziatu.
- Diru-sarrera eta gastuen gaineko jarraipena egin.
- Balantze ekonomikoa prestatu

Garapena

EKINTZAK:

Batzorde Ekonomikoaren bilerak

Aldundiekin bilerak

Eusko Jaurlaritzarekin bilerak

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- 2018ko Batzar Orokorraren koordinaketa eta dinamizazioa.

HELBURU ZEHATZAK:

- Batzarrerako beharrezko dokumentazioa prestatu.
- Aldez aurretik elkarten proposamenak jaso eta aurkeztu.

Garapena

EKINTZAK:

Memoria eta plangintzaren prestaketa.

Elkarten proposamenak jaso eta aurkeztu.

Kidetze eskaerak jaso eta aurkeztu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Batzarraren eraginkortasuna
- Elkarten iritzia

7.5. ELKARLANA ETA ORDEZKARITZA

7.5.1. EUSKO JAURLARITZA

Bere izaera juridikoa, finantziazio-bidea eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean Eusko Jaurlaritzarekin, EAE mailako elkarlanerako guneak konpartitzen dituztelarik. Gainera, EGKren finantziazio-bide nagusia den aurrekontu-partida instituzio honen eskutik dator.

Aurten, EGKren lana balioan jartzeko ahaleginean jarraituko da. 2017ean, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin harremana mantendu da: Bake eta Bizikidetza Idazkaritza Nagusiarekin, Enplegu Zuzendaritzarekin, Hezkidetza Planarekin, Kanpo Harremanetako Zuzendaritzarekin, Emakunderekin eta Etxebizitza zuzendaritzarekin. Lortutako emaitza arrakastatsuetan oinarrituz, 2018an elkarlan horiekin jarraitzea da asmoa.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK:

- Elkarlanerako guneak identifikatu.
- Eragin politikoa izan.

HELBURU ZEHATZAK:








- Hainbat zuzendaritza eta idazkaritzekin informazio-trukaketa bermatu.
- Lankidetza sustatu.
- EGKren aurrekontua egonkortzeko lana egin.

Garapena

EKINTZAK:

-  Informazio-trukaketa bilerak
-  EGKren lana balioan jartzea

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
											
											

Ebaluazioa

- Bileren maiztasuna.
- Bileren eraginkortasuna.
- Lankidetzagune berrien sorrera.
- Aurrekontuan eragina.

7.5.2. ALDUNDIAK

Bere izaera juridikoa, finantziazio-bidea eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean instituzio publikoekin. Aldundiekin ere gazteen egoera, behar eta interesen inguruan lan egiten da. Horretarako, 2018an lurralde historiko bakoitzeko Foru administrazioarekin hitzarmen bat sinatzeko ahalegina egingo da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Elkarlanerako guneak identifikatu (Gaztematika, GazteBizz, gazteen egoera sozioekonomikoa, elkartegintzaren errealitatea...)

HELBURU ZEHATZAK:

- Lankidetza sustatu.
- Hitzarmenetako aurrekontuak bermatzeko lana egin.

Garapena

EKINTZAK:

Elkarlanerako guneen identifikazioa.

Aurrekontuaren gaineko lanketa.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bileren maiztasuna
- Bileren eraginkortasuna
- Lankidetza gune berrien sorrera
- Lankidetzaren eraginkortasuna

- Aurrekontuan eragina

7.5.3. EUSKO LEGEBILTZARRA

Bere jardueren eta asmoen berri emateko, EGK-k agerraldiak egiten ditu Legebiltzarrean, Gazteria Batzordearekin bilduaz. Urtean behin gutxienez ohiko agerraldia egiten du ordura arte egindako lana plazaratu eta hortik aurrerako asmoak azaltzeko.

Horrez gain, EGK-k zenbait proiektu eta horien ondorioak plazaratzeko agerraldi eskaerak egin ohi ditu.

Bestalde, legebiltzarkideek EGKren agerraldiak eskatuz gero, gai zehatzen gainean erantzuna emateko, bertaratu eta hala egingo da. 2014ean Gazteen Lantaldea abian jarri zenez, parte hartze aktibo bat izateko ahalegina egin da, baina taldearen aurrera pausoen arabera izango da.

Azkenik, Legebiltzarreko alderdi ezberdinekin ere bilerak izaten dira gazteriaren gaineko kezka nagusiei buruz hitz egiteko, EGKren egitekoaren berri emateko edo bestelako kontuetarako.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Legebiltzarkideei EGKren jardueraren berri eman.

HELBURU ZEHATZAK:

- Ohiko agerraldian memoria eta plangintza aurkeztu.
- Legebiltzarkideen agerraldi-eskaera eta galderei erantzuna eman.
- Gazteen egoeraren berri eman erakundeei eta gizarteari.

Garapena

EKINTZAK:

-  Ohiko agerraldia
-  Agerraldi eskaerei erantzuna eman

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Agerraldien maiztasuna.
- Agerraldien kalitatea eta eragina.

7.5.4. BATZAR NAGUSIAK

Bere izaera juridikoa, finantziario-bidea eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean instituzio publikoekin. Lurralde Historiko bakoitzeko gazteria politiken inguruko hausnarketa eta gazteen egoeraren inguruko datu eta informazioa Batzar Nagusietan plazaratzeko ahalegina egiten da agerraldien bitartez.

Horrez gain, hitzarmena sinatu aurretik, aurrekontu garaian, EGK-k bere jardunaren berri ematen saiatzen da alderdi ezberdinekin bilduz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Elkarlana sustatu.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren presentzia instituzioetan egonkortu.
- EGKren egitekoaren berri eman.
- Lurraldeko gazteriaren egoeraren berri eman.
- Hitzarmenak negoziatu.

Garapena

EKINTZAK:

EGKren ordezkaritza publikoa eta iritziaren plazaratzea.

KRONOGRAMA :

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Agerpenen maiztasuna eta eragina.
- Hitzarmenak lotzea.
- Komunikabideen erantzuna.

7.5.5. UDALAK

Bere izaera juridikoa eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak instituzioekin hartu emana izaten du, baita zenbait Udaletako Gazteria sailarekin ere.

Oro har, EGKren ekarpena gazteria politikei egiten zaie Gazte Planak edo bestelako proiektuen bitartez. Horietarako, eratuta dauden estrukturetan parte hartzen da, foroak, eztabaida mahaiak eta abarren bitartez.

Tarteka, kolaborazio hitzarmenak ere sinatzen dira. Harremana edozein dela ere, harremana mantentzea, bilerak egitea, hitzarmena adostea, sinatzea eta koordinatzea... presidentziaren bitartez burutzen da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Politika publikoetan eragitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren lana eta ondorioak zabaltzea.
- Gazteriaren egoeraren berri ematea.
- Gazteria politikei ekarpenak egitea.

Garapena

EKINTZAK:

EGKren ordezkaritza publikoa eta iritziaren plazaratzea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bileren maiztasuna eta eragina
- Hausnarketen sakontasuna
- Kolaborazio hitzarmenak sinatzea-berritzea

7.5.6. BESTE ERAKUNDEAK

Urtean zehar Gazteria politketan eta gazteekiko lanean diharduten beste zenbait eragile eta erakunderekin ere kontaktu zuzena eta jarraitua edukitzen da presidentziatik, hala nola: Nafarroako Gazte Kontseilua, Espainiako Gazte Kontseilua, Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Eskola Kontseilua, Boluntariotzaren Euskal Kontseilua ...

Horiez gain, EGK-k hainbat entitatekin (EGK barruko eta kanpokoak) elkarlana sustatzen du: Udako Euskal Unibertsitatea, Bai Euskarari... Bi hauekin esaterako, hitzarmenen jarraipena egiten da.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK:

- EGKren ordezkaritza egin.
- Erakunde eta eragile ezberdinekin elkarlana eta sinergiak bilatu.
- EGKren hitza eta iritzia zabaldu.

Garapena

EKINTZAK:

EGKren ordezkaritza publikoa eta iritziaren plazaratzea.

KRONOGRAMA :

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

7.5.7 KOMUNIKABIDEAK ETA IRUDI PUBLIKOA

EGKk izaera publikoa eta ordezkari-izaera ditu eta lantzen dituen gaiak gaurkotasunekoak eta zenbait sektoreen interesekoak dira. Hau dela eta, Kontseiluak hainbat agerraldi publiko egiten ditu, batzuk EGKk berak deituta, beste batzuk medioek edo bestelako eragileek deituta.

Hala, 2018an zehar ere komunikabideetan, elkarriketa eta prentsaurrekoetan, aurkezpenetan eta hitzaldietan parte hartuko da, EGKren hitza eta iritzia gizarteari helarazteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK:

- EGK publikoki ordezkatu.
- EGKren hitza eta iritzia gizarteratu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Elkarriketetan eta aurkezpen publikoetan EGK ordezkatu.
- EGKren publikazioetarako zein komunikabide idatzietarako iritzi-artikuluak, elkarriketak e.a. egin.

Garapena

EKINTZAK:

EGKren ordezkaritza publikoa eta iritziaren plazaratzea.

KRONOGRAMA :

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Agerpenen maiztasuna eta agerpenen eragina.
- Komunikabideen erantzuna.

7.6. GAZTERIA-LEGEA

EGK-k urteetan parte hartu du Gazteria Legaren sorreraren prozesuan. Hainbat saiakera eman dira eta 2018an zehar hurrengo saiakera bat egingo da. Hori dela eta, EGK prozesuan zehar berriz ere egongo da. Hainbat bilera burutu beharko dira baita topaketak zein txostenak.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK:

- EGKren iritzia jaso
- EGKren ordezkaritza egin
- EGKren ikuspuntua zabaldu

Garapena

EKINTZAK:

EGKren ordezkaritza publikoa eta iritziaren plazaratzea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE